



Gatazka-mineralak eta teknologia arduratsua

Produktu
elektronikoen
erosketa publiko
arduratsurako gida



ALBOAN

Jesuitek bultzatutako Fundazioa

www.alboan.org



**GATAZKARIK
GABEKO
TEKNOLOGIA**

**Gipuzkoako
Foru Aldundia**
Diputación Foral
de Gipuzkoa




**ORAIN
GIPUZKOA**



**GARAPENERAKO
LANKIDETZAREN
EUSKAL AGENTZIA**
AGENCIA VASCA DE
COOPERACIÓN PARA
EL DESARROLLO



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**



Gatazka-mineralak eta teknologia arduratsua.
Produktu elektronikoen erosketari publiko arduratsurako gida

ALBOAN Fundazioa

Bilbo

Aita Lojendio, 2 - 2. • 48008 Bilbo

☎ 944 151 135

Donostia

Andia, 3 • 20004 Donostia

☎ 943 275 173

Iruñea

Barañáin Etorbidea 2 • 31011 Iruñea

☎ 948 231 302

Vitoria-Gasteiz

Monseñor Estenaga 1 • 01002 Vitoria-Gasteiz

☎ 945 202 676

Informazio gehiago hurrengo helbide honetan:

www.tecnologialibredeconflicto.org

www.alboan.org



Egilea: Santiago Lesmes Zabalegui

Sustatzailea eta argitaratzailea: **ALBOAN** Fundazioa


Data: Ekaina 2018

Diseinu eta maketazioa: Marra, S.L.

Inprimatzailea: Gráficas Ingugom

Lege gordailua: BI-1788-2018

Itzulpena: AEIOU Traductores



Índice

Sarrera. Xedea	4
-----------------------------	----------

Oinarrizko 10 galdera produktu teknologikoetan erosketa publiko arduratsuko irizpideak aplikatzeko	6
---	----------

Gida praktikoa. Produktu teknologikoetan erosketa publiko arduratsuko klausulak sartzeko urratsak	15
--	-----------

1. Kontratua prestatzea	15
--------------------------------------	-----------

1.1. Kontratuaren xedea definitzen dugu	15
1.2. Espedientea justifikatzen dugu	16
1.3. Aurretiko kontsultak egiten ditugu merkatura	17
1.4. Lote bat edo batzuk ezartzen ditugu "gatazkarik gabeko teknologia" gisa	19

2. Klausulak sartzen ditugu	22
--	-----------

2.1. Borondatezko eskaera gisa: esleitzeko irizpideak	22
2.2. Nahitaezko gehienezko eskaera gisa: nahitaezko irizpideak sartuz	26
2.2.1. Gauzatzeko baldintzak gisa	26
2.2.2. Kaudimen teknikoko irizpide gisa	28

3. Arauak eta egiaztatze sistemak ezartzen ditugu. Jakinarazi eta argitaratzen ditugu	30
--	-----------

2017ko ekainaren 8an gatazka edo arrisku handiko egoeran dauden eremuetatik datozen mineralak hornitzeko kateen behar bezalako ardurari buruzko 2017/821 Europako Araudia indarrean sartu zen. Erregulazio horren xedea bikoitza da: batetik, hornidura-jarduera arduratsuak sustatzea ezta inu, tungsteno, tantalio eta urretik –ingelesez 3TG siglen bidez adierazitakoak¹; eratorritako metalen inportatzaileen artean; bestetik, mineral horiek erauzten, kudeatzen eta komertzializatzen diren eremuetan aritzen diren indar armatuen eta hilketa antolatuen finantzazioarekin amaitzea.

ALBOAN fundazioak gatazkarik gabeko teknologia kanpaina egin zuenetik, hurbiletik jarraitu ditugu negozioak horiek Europako gizarte zibileko beste 130 erakunderekin batera. **ALBOAN** fundazioan aski ongi ezagutzen dugu "gatazka-mineralen" arazoa, izan ere, 20 urte baino gehiago daramatzagu lankidetzan bertako erakundeekin Kongoko Errepublika Demokratikoaren ekialdean, Kolonbian eta Hondurasen. Leku horietan guztietan, askotan, baliabide mineralen ustiapena eta giza eskubideen urratzeak (esaterako, nahitaezko lana, haurreen esplotazioa eta baita emakumeen aurkako sexu-indarkeria ere) lotuta daudela egiaztatu da.

Badakigu meatzaritzak zenbaterainoko garrantzia duen egoera horretan hango eskualdeen garapenerako. Berezi artisau-meatzaritzaren kasuan, eskala txikian, hainbat lanpostu sortzeaz gain, bertako eskualdeen jarduera ekonomikoa sustatzen ere egiten duelako. Hala ere, ezin ditugu alde batera utzi merkataritza horretan dauden ondorio baztergarriak.

"Gatazka-mineralen" merkataritzarekin lotutako arriskuek datozen urteetan okerragotzeko arriskua dute, mineral horiek gero eta gehiago eskatzen direlako produktu elektronikoak fabrikatzeko, hala nola telefono mugikorrak, tabletak eta ordenagailuak.

Europako merkatuari mineral horiez egindako gailu manufakturuak fabrikatu edo inportatzen dizkieten enpresak ez daude onartutako araudiak babestuta. Hala ere, Europako Batzordeak, bere erantzukizunaz jabetuz, beste neurri batzuk hartuko dituela jakinarazi du, enpresa horiei, nahi badute, hornidura-jarduera arduratsuak har ditzaten laguntzeko. Neurri horiek gauzatzeko eta zuzeneko inportatzaileen betebeharrak ezartzeko epe bat onartu dute: 2021eko urtarrilaren 1 arte.

Baina ez daukagu galtzeko denborarik. Izan ere, bai administrazio publikoek, bai enpresek eta gizarte zibilak, aurrera egin dezakegu dagoeneko mineralen hornidura arduratsua sustatzeko.

Hori horrela, gida honek, produktu elektronikoaren erosketan guztietan gizarte-klausulak sartzeko beharrezkoak diren tresna guztiak ematen dizkie administrazio publikoei, eta

1 Tin, Tantalum, Tungsten, Gold.

mineral horien hornidura-kateetan parte hartzen duten enpresek, Ekonomia eta Lankidetzaren Garapenerako Antolakundeak (ELGA) eta Europako Arautegiak berak ezarritako zuzentarauei jarraitzen dietela bermatzen du.

Ez dago zalantzarik oso garrantzitsua dela erosketa publikoan irizpide horiek sartzea:

- ➡ Bere garrantzi kuantitatiboa ukaezina da (Europar Batasuneko BPGren % 19)², Espainiaren kasuan, BPGren % 18,5 delako, ia 200.000 milioi euro urtero, edo 4.100 euro baino gehiago urtero biztanleko³, beraz, gizarte-erantzukizuneko irizpideekin erabili beharko litzatekeen kopuru handia da
- ➡ Ahalmen mediatiko nabarmena du, plegu arrunt bat sentsibilizazio-kanpaina baten berri emateko oso erakusleho garrantzitsua delako.
- ➡ Politika eraldatzaileei buruz ari gara, haien eragina ez baita agortzen telefono mugikor bat edo ordenagailu bat erostean. Mezu argia igortzen diegu teknologia-enpresei, eta herritarrak eskaera horretan parte hartzera bultzatzen ditugu.
- ➡ Helburu bikoitza daukagu: batetik, gauzak ongi egiten dituen saritzea (borondatez, ELGAk eta nazioarteko arautegiek ezarritako behar bezalako diligentziaren zuzentarauak txertatzea erabaki duten enpresa elektronikoen abantaila lehiakorra indartuz); bestetik, gaitzets daitezkeen portaerak aldatzea, erantzukizun sozialeko politikak hartzen ez dituzten enpresei, hori egitera bultzatuz, administrazio publikoek kontratatzea nahi badute.

² (Public Procurement Indicators 2012), Europako Batzordea, 2014.

³ Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionala: Kontratazio publikoaren azterketa Espainian: hobetzeko aukerak lehiaren ikuspegitik (PRO/CNMC/001/15).

1. Erabil daitezke gizarte eta ingurumen irizpideak kontratazio publikoan?

Ez, inolako zalantzarik gabe. Aurrerago zehaztu eta aipatuko dugunez, kontratu publikoei buruzko Europako legedia eta estatuaren araudia guztiz espelizituak dira, izan ere, gizarte- eta ingurumen-irizpideak legezkoak dira kontratazio publikoan, eta berariaz sustatu behar dira, haiek txertatzea lehen-tasun bat izan behar du.

Kontratazio publiko arduratsua, beraz, ez da asmoen aitorten erretorikoa; legezko artikuluetan berariaz bermatzen da juridikoki. Horrela, gida honetan zehar 2017ko Sektore Publikoaren Kontratuen Legearen (SPKL aurreratzean) gizarte eta ingurumen erreferentzia ugari aipatuko ditugu, funtsezkoak diren zenbait alderdiri erreparatuz, hala nola esleitzeko irizpideak eta gauzatzeko baldintza bereziak.

Gizarte eta ingurumen irizpideak sartzearen legezkotasuna SPKLren 1. artikuluan jasotzen da zalantzarik gabe. Hor, hauxe adierazten da:

1. Artikulua. Xedea eta zertarakoa.

3. Kontratazio publiko guztietan ingurumen eta gizarte irizpideak nahitaez eta zeharkakotasunez jasoko dira, betiere kontratuaren xedearekin lotura badute; izan ere, horrelako irizpideak jasoz gero, kontratazio prestazioan kalitate-prezio lotura hobea izango da, eta funts publikoen erabilera eraginkorragoa izango da. Bideanabar, enpresa txiki eta ertainek kontratazio publikora sarbidea izatea erraztuko da, baita ekonomia sozialeko enpresek sarbidea izatea ere.

Zentzu horretan, ziurta dezakegu gida honen proposamen, klausula eta planteamendu guztiak erabat legezkoak direla, eta indarreko kontratazio publikoari buruzko arautegiari jarraituz, berme juridiko guztiak dituztela.

2. Nork erantsi ditzake gatazka-mineralai eta teknologia arduratsuari buruzko klausulak bere erosketa publikoko prozesuetan?

Estatu, autonomia eta bertako esparruko administrazio publiko guztiek, hau da, Administrazio Zentralak, autonomia-erkidegoek, aldundiek, udalek, uharteko batzordeek, autonomia-hiriei eta uharteko kabildeok.

Horrez gain, sektore publikoaren barruan eta kontratu publikoei buruzko arautegira atxikita dauden erakunde guztiak: enpresa publikoak, erakunde autonomoak, fundazio publikoak, mankomunitateak, partzuergoak eta unibertsitate publikoak.

Eta kontratu publikoei buruz ari bagara ere, eta haien lege-esparrua aztertzen ari garen arren, gustatuko litzaiguke eranstea edozein pertsonak, enpresak, erakundeak, elkartek edo erakunde pribatuk aplikatu ditzakeela, borondatez eta arduraz, gida honetan azaltzen diren irizpideak. Bestalde, aukera badu, produktu teknologikoen erosketa arduratsuak ere susta ditzake.

3. Zer kontratutan aplikatu ditzakegu gatazka-mineralai eta teknologia arduratsuari buruzko klausulak?

Fabrikatzeko 3TGak (eztainua, tantalioa, wolframa eta urrea) behar dituzten produktu teknologiak erostea edo eskuratzea ekartzen duten kontratuetan.

Nagusiki **gailu elektronikoak hornitzeko kontratuei** eta telekomunikazioen (telefonía finkoa, mugikorra eta Internet) kontratu zerbitzuei buruz ari gara, gailu elektronikoak erostea eskatzen dutenak.

Gure lehentasuna arreta ordenagailu finko eta laburretan, tabletetan eta telefono adimendunetan jartzea da, kontsumoko elektronikan gastu publikoaren zati handiena ekartzen duten produktuak direlako. Hala ere, klausulak beste gailu elektroniko batzuetan ere erabil daitezke, hala nola datuak prozesatzeko ekipamenduetan, informazioa biltzeko unitateetan, kamera digitaletan, monitoreetan, proiektagailuetan, irratietan eta telebistan.

4. Zer eskaera sar ditzakegu pleguetan?

Gida honetan bi motatako eskaera edo ezaugarri nagusi erabiliko ditugu:

a) Enpresa lizitatzailen ezaugarriak.

Produktua fabrikatzen duen enpresak gatazka-mineralei buruzko politika bat izan dezala, sarbide publikokoa izatea eta hornitzaileekiko merkataritza-harremanetan barne hartzea eskatzea, *ELGAren Nahitaezko Eginbidearen Gida, Gatazka edo Arrisku handiko Eremuetako Mineralen Kate Arduratsueta-rako* -aurrerantzean "ELGA Gida"⁴ esango diogu- gida ezarritako zuzentarauekin bat.

Edo produktua fabrikatzen duen enpresak ELGA gidarekin bat datorren industria-programaren batean parte har dezala eskatzea, gatazka-eremuetatik edo arrisku handiko eremuetatik datozen mineralen hornidura arduratsua susta dezaten.

Edo enpresa lizitatzailak edota hornitzaileak hornidura-programa edo -ekimen bat finantzarioki laguntzea hornitzen duen edozein gatazka-eremutan edo arrisku handiko eremutan.

b) Produktuei buruzko ezaugarriak.

Kasu honetan, produktu elektronikoaren osagaietan edo fabrikazioan erabilitako mineralak hornidura-kate arduratsuetatik datozela eskatzea eta bermatzea da kontua, hau da, ELGA gidaren zuzentarauek betetzen dituztela erabazte, garraio eta komertzializazio prozesuan, gatazka-eremuetatik datozen edo horiek zeharkatzen dituzten kontuan hartu gabe.

Ohartarazi behar dugu hornidura-kateak konplexuak direla, eta enpresa fabrikatzaile asko oraindik ez dira gai bere produktuek eramaten duten osagai bakoitzak erabilitako mineral guztien trazabilitate osoa egiaztatzeke. Zentzu horretan, ez dago produktu elektroniko bat "gatazkarik gabe % 100ean" dagoela bermatzen duen egiaztagiririk. Bestalde, gure helburua ez da enpresa fabrikatzaile batek "gatazkarik ez duela" aitortzea, aitorpen publiko bat egiteagatik bakarrik. Gure helburua da bere hornidura-kateetan nahitaezko diligenzia-sistemak txertatuko dituela hitz ematea, gatazka-mineralen merkataritzarekin lotuta egon daitezkeen arriskuak ebaluatuz

eta horiek prebenitzeko eta arintzeko beharrezkoak diren neurriak hartuz. Horregatik, eskaeraren mailarik oinarritzkoenak enpresa lizitatzailen edota hornitzaileen nahitaezko diligenzia-prozesuarekin lotutako irizpide etikoak barne hartu behar ditu, 4a. atalean adierazitakoak bezalakoak.

Hala ere, produktu jakinen erosketaren inguruko bi aukera kontuan har daitezke:

⇒ TCO ziurtagiria duten produktuen erosketari lehentasuna ematea. Ziurtagiri honen 10. puntuan ikusiko dugunez, "% 100ean gatazkarik ez duen" proiektua dela bermatzen ez badu ere, bere irizpideen artean ELGA gidaren zuzentarauek barne hartzen dituen produktu ziurtagiri bakarra da. Zuzentarauek horiek, gatazkan dauden enpresa fabrikatzailearen mineralen hornidura arduratsuari buruzkoak dira.

⇒ "Teknologia arduratsuko" berariazko lote bat edo batzuk erostea. Gida honen bigarren zatian garatuko dugun aukera da. Estandar etiko eta ingurumen-estandar zorrotzenak betetzeko diseinatu den telefono mugikor bakarraren erosketan aplikagarria da. Horrela, ELGA gidan eta EU 2017/821 arautegian identifikatutako lau 3TGen hornidura arduratsua ziurtatzea lortu du. Fairphoneri buruz ari gara.

Ohartarazi nahi dugu hornitzeko berariazko produktuei buruzko eskaerek dagoen eskaintza muga dezaketela, baina horrela lor dezakegu, hain zuzen, gure helburua: gero eta enpresa gehiagok txertatzea ELGAk eta EU 2017/821 arautegiak proposatutako nahitaezko diligenzia-sistemak, mineralen hornidura-kate arduratsuak sustatzeko. Hamargarren galderan gai horri lotuko diogu berriro.

5. Arazoa al da irizpide eta eskaera guztiak kontratuaren xedearekin lotzea?

Ez du inolako arazorik ekartzen indarreko arautegiaren arabera, baina zalantzak argitzeko eta nahasteak saihesteko, komeni da puntu hauek argitzea:

a) Kontratu publikoen antzinako legediak horren inguruko eskaera ezartzen zuen hau zioenean:

4 OECD (2016), *OECD Due Diligence Guidance for Responsible Supply Chains of Minerals from Conflict-Affected and High-Risk Areas*, Tercera Edición, OECD Publications: Paris. Hemen: <https://mneguidelines.oecd.org/mining.htm>

"esleipen irizpideek kontratuaren xedearekin zuzenean lotuta egon beharko dute".

- b) Horrek pleguetan hornidura arduratsuko irizpideak barne hartzen dituen edozein proposamen baliogabetuko luketen interpretazio murriztaileak ekar litzake, gatazka-mineralen kasuan bezala. Ikuspegi kontserbadore hau kontuan hartuz, haxe esan genezake: "telefono mugikor bat hornitzen badu, kontratuaren xedea telefono mugikor bat da, beraz, ezin da baloratu, ezta kontuan hartu ere Kongon edo hornidura-katean gertatzen dena, kontratuaren xedearen barruan ez dagoelako".
- c) Auzi horri buruz dagoeneko aritu zen eta ebatzi zuen Europako Parlamentuko eta Kontseiluko 2014ko otsailaren 26ko kontratazio publikoari buruzko 2014/24/EB Zuzentarauak. Testu hori SPKL berrian jasotzen da, hitzez hitz, eta 145.6. artikuluan haxe ezartzen du:

145. Artikulua. Kontratu esleitzeko baldintzak eta irizpide motak.

6. Esleitzeko irizpide bat kontratuaren xedearekin lotuta dagoela esango da kontratu horren arabera egin behar diren prestazioak barne hartzen baditu, edozein arlotan eta bere bizitza-zikloaren edozein etapetan, prozesu hauetan esku hartzen duten faktoreak barne:

a) Hala badagokio, obra, hornidura edo zerbitzuen berariazko ekoizpen, prestazio edo komertzializazio prozesuan, ingurumenaren eta gizartearen ikuspegitik iraunkorrak eta bidezkoak diren ekoizpen, prestazio edo komertzializazio moduei arreta berezia jarritz.

b) Bere bizitza-zikloaren beste etapa baten berariazko prozesuan, faktore horiek bere funts materialaren barruan ez badaude ere.

- d) Horrenbestez, kontratuaren xedearekin lotuta dagoela esango da kontratuaren prestazioekin zerikusia duen edozein gai, edozein arlotan, bere bizitza-zikloaren edozein etapetan, baita bere funts materialaren barruan ez badago ere, berariazko ekoizpen-prozesuan, edo ingurumenaren eta gizartearen ikuspegitik iraunkorrak eta bidezkoak diren ekoizpen eta komertzializazio moduetan. Zentzu horretan, legearen arabera, kontratuaren xedea industria fabrikatzaileen hornidura-kateetan nahitaezko diligentsia bete dadila eskatzea edo baloratzea da.
- e) Ikusten dugunez, segurtasun juridikoa erabatekoa da, hala ere, kontratuaren xedean berariazko erreferentzia bat egitea gomendatzen

dugu, aurrerago gida honen bigarren zatia 1.1. puntuan aholkatzen dugun moduan.

6. Norentzat dira baldintzak, enpresa lizitatzailerentzat edo fabrikatzailearentzat?

Ohikoena da produktu elektronikoen enpresa fabrikatzaileek lizitazioetan ez parte hartzea; enpresa banatzaile edo komertzializatzaileek egitea. Beraz, zalantza sor daitezke, ez dakigulako nori dagokion ezartzen ditugun ezaugarriak edo irizpideak betetzen dituztela egiaztatzea.

Ikuspegi juridikotik, gai horrek ez du arazorik ekartzen, izan ere, ezartzen ditugun baldintzak, ezaugarriak, irizpideak edo gauzatzeko baldintzak fabrikatzaileak bete beharko ditu (bai bere politikan, bai hornitzen duen produktu teknologikoan). Baina agiriak lortzea, egiaztatzea eta ekartzea enpresa lizitatzailerari dagokio, berak parte hartzen baitu kontratuaren esleipenean.

Gai horrekin lotuta dago enpresa azpikontratisten gaia, izan ere, gerta daiteke enpresa lizitatzailerak (edo kontratistak) kontratuaren prestazioaren zati bat hirugarren bati azpikontratatzeko. Kasu horretan, arautegiak argi adierazten du, baina pleguetan ez litzateke gaizki egongo hori jasotzea. Gizarte eta ingurumen betebeharrak guztiak biek dituzte, eta kontratista nagusiak nahiz azpikontratista izan daitezkeenek ezartzen diren gizarte edo ingurumenaren arloko ezaugarri eta baldintza bete behar dituzte, pleguak hala ezartzen duelako. Horrela, SPKLren 202.4. artikulua hau ezartzen du:

Kontratuan jasotzen diren gauzatzeko baldintza berezi guztiak kontratu gauzatzen parte hartzen duten azpikontratista guztiei eskatuko zaizkie.

Eta gogoratu behar dugu kontratista bete eta egiaztatu behar duela gizarte eta ingurumen betebeharrak betetzen dituela, beraz, bere esku egongo da azpikontratatutako horiek ere betetzea. Horrela ezartzen du SPKLren 215. artikulua:

4. Azpikontratatutako kontratista nagusiaren aldera baino ez dituzte betebeharrak izango, eta hark bereganatuko du, beraz, administrazioarekiko erantzukizun osoan, kontratu administrazio-klausula zehatzen pleguei edo agiri deskribatzaileari, eta kontratuaren baldintzei estu-estu lotuta, 201. artikuluan, ingurumen, gizarte edo lan arloan aipatzen diren betebeharrak betetzea barne.

7. Baina legezkoa al da enpresaren erantzukizun soziala kontuan hartzea?

Bai, legezkoa da, hala ere, normalean errepikatzen da kontratazio publikoan ez dagoela enpresa baten gizarte-erantzukizuna kontuan hartzerik, baliozko irizpide bat ez baita. Horrela ezartzen du, esaterako, 97. kontuan hartuzkoan, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko kontratazio publikoari buruzko 2014/24/EB zuzentarauak:

Hala ere, kontratuaren xedearekin lotuta bat egoteko baldintzak ez ditu barne hartzen erantzukizun korporatiboko politika orokorrari buruzko irizpideak eta baldintzak. Hori, ezin da hartu eskuratutako obra, hornidura edo zerbitzuen berariazko ekoizpen edo prestazioaren eragiletzat. Horrenbestez, aginte esleitzzaileek ezin diete eskatu lizitatzzaileei enpresaren gizarte edo ingurumen erantzukizuneko politika jakin bat ezarrita izatea.

Hala ere, ñabardura nabarmendu behar dugu, izan ere, garrantzitsua ere bada, gizarte-erantzukizuneko "politika orokorrari" buruzkoa hain zuzen, hor, sartuko ditugun klausulen legezkotasunaren edo legezkotzasunaren gakoa baitago. Hori horrela, ez litzateke baliozkoa izango eta aurkaratzeko modukoa enpresa lizitatzzaileari edo enpresa fabrikatzzaileari gizarte erantzukizuneko politika orokor jakin bat eskatzea edo baloratzea.

Baina guztiz legezkoa da kontratuaren hornidura edo xedea den produktu teknologikoarekin zerikusia duen gizarte-erantzukizuneko politika jakin bat eskatzea (gauzatzeko baldintza berezia, ziurtagiria edo etiketa) edo baloratzea (esleitzeko irizpidea). Izan ere, aurreko testuak berak giltza ematen du: "kontratuaren xedearekin duen loturari" buruz ari da, eta "berariazko ekoizpen edo emate prozesua egituratu behar duela" esaten da. Gure kasuan, beti kontuan hartuko duguna, eta beraz, legezkoa dena, berariazko ekoizpen prozesuari aplikatutako gizarte erantzukizuna da, betiere kontratuaren xedearekin lotuta dagoena.

Horrenbestez, ohartarazten dugu eskatu edo baloratzen dugun gizarte erantzukizunak kontratuaren prestazioarekin edo kontratuaren xedearekin lotuta egon beharko duela.

SPKL berriak horrela bermatzen du, izan ere, berariaz adierazten du 145. artikuluan, interpretatzeko

aukerarik eman gabe, baliozko esleipen-irizpide bat duela: "irizpide etikoak eta gizarte-erantzukizuneko aplikatzea kontratuaren prestazioan".

8. Ziurtagiri, erantzukizunpeko adierazpen edo gizarte eta ingurumen etiketei buruz hitz egin dezakegu?

Bai, legearen ikuspegitik egin dezakegu eta interes handia dugu egiteko, beharrezko segurtasun juridikoa ematen digulako teknologia fabrikatzen duen enpresak egiten duen mineralen hornidura arduratsuekin zerikusia duten irizpideak erabiltzean. Horrez gain, lizitatzzaileen lehia librea, tratu berdintasuna eta ez bazterkeria bermatzen duen xede frogabide egiaztagarria ematen digu.

Horrela, SPKL berriak, etiketen eskaera edo balorazioa erregulatu du 127. artikuluan, eta 128. artikuluan, ziurtagiri, txosten eta frogabideen erreferentzia edo eskaera.

Bi kasuetan zehaztasunez definitzen dituzte kontzeptua eta baldintzak, eta berariaz adierazten dute baldintza teknikoetan, balorazio-irizpideetan edo gauzatzeko baldintza berezietan, berariazko etiketa, ziurtagiri edo txosten bat eska dezaketela.

Horrez gain, lehen zati honen azken galderan ikusiko dugunez, enpresa lizitatzzaileei erantzukizunpeko adierazpen bat eska diezaiekegu. Hor, nahitaezko diligentzia-politika bat dutela adierazi behar dute fabrikatzzaileek, ELGA gidak ezarritako baldintzei jarraituz (II. eta III. eranskina). Bestalde, mineralen hornidura arduratsuari buruzko EU 2017/821 arautegia txertatzeko, Europako Batzordeak 2018. urtearen amaieratik gardentasunari buruzko datu-base bat ateratzeko asmoa du. Hor, mineral horiekin manufaktura-produktuak fabrikatzen eta inportatzen dituzten enpresek, ELGAk hornidura arduratsurako ezarritako zuzentarauak betetzen dituela egiaztatzen duen informazioa igo ahalko dute.

Gardentasunaren datu-base horrek erabiliko dituen irizpideak oraindik definitu ez badira ere, SPKLk honako hau adierazten du gizarte-klausulen betetzea egiaztatzeke moduei dagokienez:

127. artikulua. Etiketak.

1. Lege honen ondorioetarako, "etiketa" izango da: dagokien obra, produktu, zerbitzu, prozesu edo prozedurek zenbait baldintza betetzen dituztela berresten duen edozein agiri, ziurtagiri edo egiaztagiri.
2. Kontratazio-organismoek ingurumen, gizarte edo beste arlo bateko berariazko ezaugarriak dituzten obrak, hornidurak edo zerbitzuak eskuratu nahi dituztenean, berariazko etiketa bat eskatu ahalko dute baldintza teknikoetan, esleitzeko irizpideetan edo kontratua gauzatzeko baldintzetan, obrek, zerbitzuek edo hornidurek, eskatutako baldintzak betetzen dituztela egiaztatzeko baliabide gisa. Horrez gain, gizarte edo ingurumen arloko etiketak eska ditzakete, hala nola nekazaritza edo abeltzaintza ekologikoarekin, bidezko merkataritzarekin, genero berdintasunarekin lotutakoak, edo Lanaren Nazioarteko Erakundearen funtsezko konbentzioak betetzen dituztela bermatzen dutenak...

128. artikulua. Frogen txostenak, ziurtagiria eta beste frogabide batzuk.

1. Kontratazio-organismoek operadore ekonomikoek ebaluazio-erakunde baten frogen txostena edo hark egindako ziurtagiri bat eman dezatela eskatu ahalko dute, eskatutako baldintza teknikoak, esleitzeko irizpideak edo kontratua gauzatzeko baldintzak betetzen dituztela frogabide gisa.

Kontratazio-organismoek ebaluazio-erakunde batek egindako ziurtagiriak aurkeztea eskatzen badute, horien baliokideak diren beste ebaluazio-erakunde batzuen ziurtagiriak haiek ere onartu beharko dituzte.

Lege horretan ezarritakoaren ondorioetarako, "adostasunaren ebaluazio-erakundea" izango da kalibrazio, saiakuntza, ziurtapen eta ikuskapen jarduerak egiten dituen, eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 765/2008. Arautegiaren (EB) arabera egiaztatuta dagoena.

2. Horrez gain, contratazio-organismoek lehen atalean jasotzen ez diren beste frogabide batzuk onartu beharko dituzte, hala nola fabrikatzailearen txosten teknikoa, dagokion enpresaburuak ziurtagiri edo frogabide horiek ezin baditu ikusi, edo ezarritako epeetan ezin baditu eskuratu, betiere, ezintasun hori hari egotzi ahal zaion arrazoi batengatik ez bada, eta emango dituen obra, hornidura edo zerbitzuek baldintza teknikoak, esleipen irizpideak edo kontratua gauzatzeko baldintzak betetze dituztela erakusteko balio badu.

141. artikulua.- Erantzukizunpeko adierazpena eta beste agiri batzuk.

1. Kontratazio-organismoek adierazpenak jarraitu beharko dion ereduak barne hartuko dute pleguan, erantzukizunpeko adierazpenaren eskaerarekin batera. Pleguan jasotzen den ereduak Europar Batasunak onartutako Europako kontratazio-eredu bakarraren inprimakiari jarraituko dio, 159. artikuluen 4. ataleko c) letran ezarritakoa gorabehera.
2. Kontratazio-mahaiaren esku hartzea ezartzen den kasuetan, erantzukizunpeko adierazpena eta aurreko artikuluan aipatzen den dokumentazioa kalifikatuko ditu.

Zuzen daitezkeen akatsak ikusten baditu, hiru eguneko epea emango dio enpresaburuari, zuzen ditzan.

9.

Kontuz baliokidetasunaren kontzeptuarekin!

Aurreko puntuan industria-programak oinarritzat hartuz egindako frogabideei buruz aritu gara (etiketak, ziurtagiriak, erantzukizunpeko adierazpenak). ELGAren arabera, industria-programa bat hau da: "mineralen hornidura arduratsua egiten laguntzeko ezarri den ekimena (mineral jakin bat izan daiteke, 3T edo urrea). Hori egiteko, estandar jakin batzuk betetzen dituzten hornidurakateen bidez jardutea edo hornitzea eskatzen zaio enpresari, ELGA gidaren nahitaezko diligentzia-estandarrak barne hartuz (ez da nahitaez zorrozki barne hartu behar). "Programa" terminoak honako hauek barne hartzen ditu: industria-erakundeek ezarritako hornidura-kate edo ekimenetarako nahitaezko diligentziako sistemak, ziurtagiri independenteko ekimenak edo multi-stakeholder, gobernuen edo mineralak ekoizten dituen edo hornidura arduratsua egiten duen beste edozein erakunderen eskemak"⁵.

Industria-programa horietako bakoitzak bere metodologia du, eta horren ondorioz, bere zorroztasun-maila aldatu egiten da nahitaezko diligentziaren estandarrak betetzean. Bestalde, aurrerago azalduko dugunez, eskema horietako batean parte hartzeak ez du esan nahi enpresak nahitaezko diligentzia bete behar ez duenik; guztiz kontrakoa, bete egiten behar du.

5 OECD (2018), *Alignment Assessment of Industry Programmes with the OECD Minerals Guidance*, OECD Publications, Paris. Hemen: <http://mneguidelines.oecd.org/industry-initiatives-alignment-assessment.htm>

Bi muga horiek izan arren, industria-programek tresna interesgarriak eskain ditzakete ELGA gidan hornidura arduratsua sustatzeko ezarritako urrats bat edo batzuk betetzeko. Arrazoi horregatik, klausula jakin batzuk barne hartzean (hala nola esleitzeko irizpideak edo gauzatzeko baldintza bereziak) erabilgarriak izan daitezke. Gogoratu behar dugu hau dela helburua: nahitaezko diligentziako zuzentzauei jarraituz, arduraz lortu diren mineralak erabiltzen dituzten teknologia-enpresak edo produktuak modu positiboan aukeratzea edo baloratzea.

Baina etiketa edo ziurtagiri bat aipatzen, edo erantzukizunpeko adierazpen bat eskatzen dugunean, komeni da funtsezko legezko aurreikuspen bat kontuan hartzea: baliokidetasunaren kontzeptua.

Baliokidetasunak ez du ekartzen etiketa edo ziurtagiri jakin bat bakarrik izango dela onargarria; han ezarritako baldintzak betetzen dituzten oro izango dira baliagarriak. Horrez gain, ziurtagiria ez duen edo zuzenbidean onartutako edozein frogabideren bidez, etiketa horretan ezarritako ezaugarri eta baldintza guztiak betetzen dituela egiaztatu dezakeen lizitatuzailea ere onartu beharko da. Horrela ezartzen du SPKLren 127. artikulua:

3. Berariazko etiketa bat eskatzen duten kontratazio-organoek etiketa guztiak onartu beharko dituzte, hots, obrek, hornidurek edo zerbitzuek horiek lortzeko eskatzen diren baliokideak diren baldintzak betetzen dituztela egiaztatzen dituztenak.

Kontratazio-organoak beste frogabide batzuk onartuko ditu, 128. artikuluan aipatutakok barne, etorkizuneko kontratistak emango dituen obrek, hornidurek edo zerbitzuek, eskatutako berariazko etiketaren baldintzak betetzen dituztela egiaztatzen dutenak.

Eta gauza bera ezartzen du ziurtagirietarako 128. artikuluan:

Kontratazio-organoek ebaluazio-erakunde batek egindako ziurtagiriak aurkeztea eskatzen badute, horien baliokideak diren beste ebaluazio-erakunde batzuen ziurtagiriak haiek ere onartu beharko dituzte.

Laburbilduz, klausula tekniko edo administrazio-klausulen pleguetan etiketa sozial edo ekologiko bat, ziurtagiri edo akreditazio jakin bat aipa dezakegu. Bestela, erantzukizunpeko adierazpen jakin bat eska dezakegu. Horrez gain, zuzen deskribatu behar

ditugu bere ezaugarriak, eta beti erreferentzia edo "baliokidea" erantsiko dugu. Horrela, ez da lehia murriztuko eta ondorio guztietarako juridikoki baliokidea izango da. Baliokidetasun hori egiaztatzen duen edozein proposamen lizitaziorako onartu beharko da.

10. Teknologia arduratsuekin zerikusia duten zer etiketa, ziurtagiri edo betetze zehatzak txertatuko ditugu pleguetan?

Gida honetan erabiltzen dugun "teknologia arduratsuko" kontzeptuak *downstream* enpresek mineralen hornidura-katean egiten duten nahitaezko diligentzia-sistemen erabiltzeari egiten dio erreferentzia. Termino hori, findegietatik eta galdategietatik azken kontsumitzailearengana doazen enpresak izendatzeko erabiltzen da. Talde horretan, gailu elektronikoak fabrikatzen dituzten manufaktura enpresak eta administrazio publikoei hornitzen dieten komertzializatzaileak eta banatzaileak barne hartzen dira. Kasu horretan, ELGA gidaren zuzentzauek bere hornidura-kateetan ere aplikatu daitezke, eta Europako Batzordeak berak 2017/821 arautegiaren barruan (8. art.) borondatez aplikatzeko gomendioak egingo dituela hitz eman du.

Gai hori egiaztatzerako orduan, 6. galderan adierazi dugun moduan, administrazio publikoek bi aukera dituzte: enpresa lizitatuzailearen (edo enpresa fabrikatuzailearen) ezaugarrien berri ematen duten kontratazio arduratsuko irizpideak eskatzea, edo produktuen ezaugarriei buruzko irizpideetan oinarritzea.

Mineralen hornidura arduratsuen kasuan, ELGAK mineralen hornidura-kateetan hornidura arduratsua sustatzeko ezarritako 5 urratsak bete behar dituzte bi aukerek. Erakunde horren arabera, kate horietan parte hartzen duten enpresek hau egin beharko lukete:

- 1) Kudeaketa-sistema sendoak ezartzea,** hornitzaileekiko harremanetan berezko politika bat barne hartzen dutenak (II. eranskina); enpresaren kudeaketa-egituraren nahitaezko diligentziaren ikusapena barne hartzen dutenak; mineralen kateetan kontrol-sistemak eta gardentasuna ezartzen dituenak; hornitzaileekin lankidetzan indartzen duena, eta enpresa edo industria mailan alerta-mekanismoak ezartzea, egon daitezkeen arriskuak goiz jakinaraz ditzaten.

- 2) *Hornidura-katean dauden arriskuak identifikatzea eta ebaluatzea*, ELGA gidak barne hartzen dituen 3Tei eta urreari buruzko eranskinen laguntzarekin.
- 3) *Identifikatutako arriskuei erantzuteko estrategia bat diseinatzea eta txertatzea*. Hori egiteko, ikuskatzeaz arduratzen den pertsona edo sail bat izendatu behar da; egon daitezkeen aukera jaso, ELGA gidan jasotzen den arriskuren bat aurkitzen bada; arriskuen kudeaketa-plana ezartzea eta neurri gehigarriak hartzea, inguruabarretan gerta daitezkeen aldagetak eta arriskuak arintzeko egon daitezkeen moduak ebaluatzeko.
- 4) *Kanpoko auditoretza independenteak egitea hornidura-kaltearen leku garrantzitsuetan*. Leku horiek ELGA gidak barne hartzen dituen eranskinetan jasotzen dira.
- 5) *Nahitaezko diligentsian egiten diren aurrerape-nei buruzko informazioa ematea aldizka*. Hornidura-sistema arduratsuak ezartzean arrazoizko jarduerak eta esfortzuak jakinaraztea. Bereizita edo iraunkortasuneko edo erantzukizun sozial korporatiboko urteko berrien barruan egin dezakete.

Urrats horiek mineralen hornidura-katean parte hartzen duten enpresek bete behar dituzte, *downstream* enpresak barne hartuz, hala ere, egia da ELGAK esparru horren malgutasuna adierazten duela betebeharrak enpresa mota bakoitzera egokitzeko, beren tamainaren eta hornitzaileengan eragiteko gaitasunaren arabera.

Aurreko epigrafean adierazi dugun moduan, zenbait industria-programak betebeharrak horietako batzuk betetzen lagundu ahal dizute, enpresei beraiei erantzukizunetik salbuesten ez badituzte ere. Gaur egun, zenbait industria-programa daude merkatuan eskuragarri. Lau honetan ezagunenetako batzuk jasotzen dira.

Industria-programak

Multi-stakeholder ekimenak, enpresa-partzuergoak edo aliantza publiko-pribatuak dira, enpresen erantzukizun soziala eta gatazka-egoeran dauden herrialdeetatik etorritako mineralen hornidura-jarduera arduratsuak hobetzeko helburua dutenak. Programa horien barruan egoteko, konpromiso bat hartu behar dute alderdiek, ELGAren zuzentarauei jarraituz, arriskuak identifikatzen eta arintzen laguntzen duten informazioa, ezagutza eta baliabideak partekatzean.

Izena	Helburuak / Deskribapena:
European Partnership for Responsible Minerals (EPRM) https://europeanpartnership-responsibleminerals.eu	Holandako eta Ingalaterrako gobernuek, Europako Batzordeak eta industriak sustatutako partzuergoa da. Hiru helburu ditu: gizartearen eta ingurumenaren ikuspegitik arduratsuak diren meatzeak egiaztatzea gatazka-eremuetan; meatze-kooperatibei laguntzea; aliantzak indartzea, 3TGren hornidura arduratsua egiteko.
Public/Private Alliance for Responsible Mining (PPA) http://www.resolve.org/site-ppa/	Estatu Batuetako Gobernuak eta Industriak sustatutako partzuergoa hiru helburu lortzeko: gizartearen eta ingurumenaren ikuspegitik arduratsuak diren meatzeak egiaztatzea; meatze-kooperatibei laguntzea; aliantzak indartzea, 3TGren hornidura arduratsua egiteko.
Responsible Minerals Initiative (RMI) http://www.responsiblemineralsinitiative.org/	Responsible Business Alliance-k sortutakoa, lehen Conflict-Free Smelter Initiative ekimena zen. RMI ekimenak Responsible Minerals Assurance Process (RMAP) garatu du, industria-eskema bat dena findegiak eta galdategiak ELGAren zuzentarauei arabera auditatzeko. Funtz komun bat du baliabide gutxien dituzten bazkideen artean behar bezalako eginbidearen kostu ekonomikoak murrizteko.
Meatzaritza arduratsuen aldeko aliantza http://www.responsiblemines.org/ Fairmined Gold ziurtagiria http://www.fairmined.org/es/	Ekimen orokorra da, eskala txikiko urrezko artisau-meatzaritza jarduera iraunkor bihurtzeko eta lau herrialdeetako meatze-erkidegoetan bizitza hobetzeko. Fairmined Gold ziurtagiria sortu dute.
Responsible Artisanal Gold Solutions Forum http://solutions-network.org/site-ragsforum	Kongoko Errepublika Demokratikoaren ekitaldietan etortzen den urrearen trazabilitatea hobetzeko ekimena, meatzetik findegiraino. Laguntza teknikoa ematen du hornidura-katearen kudeaketan, eta alderdien arteko ikasketa partekatua sustatzen du.
Better Sourcing Program https://bettersourcing.io/	Bezeroei gatazka-mineralei buruzko merkataritzaren inguruko araudiak betetzen laguntzen dien konpainia da. Hori lortzeko, behar moduko diligenzia ezartzen dute katearen <i>upstream</i> atalean (denbora errealeko arriskuak ebaluatuz) eta <i>downstream</i> enpresek in lan eginez (txostenen ebaluazioan, monitorizazioan, kudeaketan eta horiek egiten).
Solutions for Hope http://solutions-network.org/site-solutionsforhope	Gizarte zibileko enpresa, gobernu eta erakundeei laguntzen dien plataforma da, 3TG mineralen hornidura arduratsuan elkarrekin lan egiteko. Abian jartzen dituen lankidetzako programek arriskuak kudeatzen dituzte enpresetarako, eta eskerrak ematen dizkiete parte hartzeagatik.

Produktuen ziurtagiriak

TCO ziurtagiria http://tcocertified.com/tco-certified/	Produktu ziurtagiria da eta produkturen zikloren inguruko gizarte eta ingurumen irizpideak barne hartzen ditu. Gizarte-arloan lehenak izan dira gatazka-mineralen atal bat barne hartzen. Hor, enpresa fabrikatzailea ELGAren zuzentarauek betetzen ari dela egiaztatzen da.
Fairphone https://www.fairphone.com/en/	Ez da, berez, ziurtagiri bat; telefono mugikorrek, Fairphone 2 hain zuzen, fabrikatzen dituen Holandako enpresa da. Telefono horiek moduluzkoak dira, eta jatorrian egiaztatutako gatazka-mineral guztiak izateagatik eta ingurumen-estandarrik zorrotzenak betetzeagatik nabarmentzen da. Gaur egun ez dute banatzailerik Espainian, baina enpresari zuzenean erosi ahal zaizkio kontratazio-pleguan lote jakin bat barne hartzen badu.

Iturria: Geuk egina.

Industria-programa hauetako baten kidea izateak edo haien ziurtagiriren bat edukitzeak ez du ekartzen enpresa fabrikatzailea edo bere produktuak giza eskubideen urratzearekin lotuta dauden arriskuetatik salbuetsita egotea. Hori gertatzen da programa horietako askok findegi edo galdategien kanpoko auditoretzak egiten dituztela, edo hornidura-kaltearen alderdi garrantzitsu batzuk kontrolatzen dituztelako. Hala ere, informazioa eman eta egiaztatzen denetik zenbait urtetako epea igaro daiteke, eta aldi horretan inguruabarrak alda daitezke. Hori dela eta, enpresak bere erantzukizuna hartu behar du bere hornidura-kateen kudeaketan behar bezalako diligentzia sistenez baliatzean.

Kontuan hartu behar dugu, ELGAren arabera, beharko bezalako diligentziak “konpainiek, benetako edo izan daitezkeen arriskuak identifikatzeko eta ebaluatzeko eman ditzaketen urratsei” egiten diela erreferentzia, “haien jarduerekin edo hornitzeko erabakiekin lotutako eragin negatiboa prebenitzeko edo arintzeko” (13. or). Bere definizioaren arabera, “prozesu etengabe, proaktibo eta erreaktiboa da”.

Hori horrela, industria-programetan parte hartzea edo ziurtagiriak lortzea tresna bat baino ez da behar bezalako diligentzia erabiltzeko. Beraz, gida honen bigarren zatian, gizarte-klausulak barne hartzeko proposamena aztertzen dugunean, erabil daitezkeen beste irizpide bat gisa hartuko dugu. Ez da irizpide bakarra, ez eta behin betikoa ere.



Demagun gatazkan dauden mineralek produktu elektronikoaren kontratazioan duten eragin etikoei buruzko informazioa badaukagula eta horren aurrean sentsibilizatu garelako. Beraz, kontratazio-pleguetan, ondorio negatiboak txikiagotzen edo kentzen dituzten klausulak sartuko ditugu. Horrela, enpresei portaera arduratsua eskatuko diegu, ELGAK ezarritako nahitaezko diligentziaren arabera. Horrela, enpresek beraien hornidura-kateetan mineralen salerosketarekin lotuta dauden arriskuak modu egokian kudeatzea da gure helburua, giza eskubideen urratzeak prebenitzeko eta arintzeko.

Zenbait aukera ditugu, batzuk besteak baino zorrotzagoak, prozeduraren zenbait fasetan klausulak sar ditzakegulako. Baina pixkanakako jarrera bat ere har dezakegu, lizitazioaren lote batean edo batzuetan klausula horiek sartuz. Grafiko honetan, aukeren arabera zer urrats hartuko ditugun ikusten dira.

1. Kontratua prestatzea

Kontratazio publiko arduratsuaren une garrantzitsu bat kontratua prestatzea da: pleguak ongi prestatu, aztertu eta idatziz gero, nahi ditugun helburuak lortu ahaliko ditugu, eta horrez gain, erabateko berme juridikoa emango dugu.

Ez ditugu jarri behar gizarte- eta ingurumen-klausula gehiegi, ezta gutxiegi ere. Zuhurtasunez eta gehikortasunez jokatu dugu. Beraz, apaintzeko klausulak, klausula sinbolikoak edo klausula gutxi ez dira eraginkorrak izango. Baina klausula gehiegi jartzen baditugu, enpresa lizitatzailerak estutuko dituzte, esleipena desitxuratu dute eta behar bezala ez gauzatzea eragingo dute. Ez dugu ahaztu behar hobe dela klausula egoki eta eraginkor bat jartzea, eraginkorrak ez diren zazpi jartzea baino.

Horrez gain, kontratazio arduratsua estrategikoa da, beraz, merkatuaren errealitateak kontuan hartuz egin beharko dira klausulak, baina baita helburu politikoaren eta herritarren eskaeren arabera ere.

1.1. Kontratuaren xedea definitzea.

Sektore Publikoaren Kontratuen Legearen 99.1. artikulua hau ezartzen du: *"Sektore publikoaren kontratuen xedea mugatu izan behar du. Ase nahi diren behar edo funtzionalitate zehatzen arabera finkatuko ahaliko da, kontratuaren helburua irtenbide bakar batera mugatu gabe. Bereziki, modu horretara definituko dira kontratatzen diren ondasun, obra edo zerbitzuen eraginkortasuna eta iraunkortasuna hobetzen duten teknologia, gizarte edo ingurumen berrikuntzak barne har ditzaketela balioesten den kontratuetan".*

Zentzu horretan, kontratuaren xedea zehatza eta jakina izan behar du. Baina arautegiak gizarte-berrikuntzak barne hartzen dituzten definizioak ere barne har ditzakeela esaten digu; edo gizarte-beharrei erantzun ere bai.

Kontratuaren xedeari oso garrantzitsua da, izan ere, ez du barne hartzen bakarrik bere definizioa; edukiaren alderdi garrantzitsuenetan ere eragiten du, zenbait alderditan:

➡ **Kontratazio-espedituentz** nahitaezko edukiaren artean hau eskatzen du: "dagozkion prestatzioak kontratatuz ase nahi duen Administrazioaren beharra adieraztea; baita kontratuaren

xedearekin duen erlazioa ere. Horrek, zuzena, argia eta proportzionala izan beharko du” (SPKLren 116.4.e). art.).

- ➡ **Baldintza teknikoak**, eskatutako obra, hornidura edo zerbitzuak ekoizteko edo emateko berariazko prozesu edo metodoari buruzkoak izan daitezke, edo bere bizitza-zikloaren beste fase baten berariazko prozesu bati buruzkoak; faktore horiek bere oinarri materialaren barruan ez badaude ere, **betiere kontratuaren xedearekin lotuta badaude**, eta haren balioarekin eta helburuekin proportzioa badu (SPKLren 126.2. art.).
- ➡ **Gizarte eta ingurumen etiketak kontratuaren xedearekin lotuta dauden irizpideei buruzkoak** bakarrik izan behar dira (SPKLren 127.2.a). art.).
- ➡ **Aldagaiak onartzeak** pleguetan jasotzea eskatzen du, eta kontratuaren xedearekin lotuta egon behar dute nahitaez (SPKLren 142.2. art.).
- ➡ **Esleitzen irizpideek kontratuaren xedearekin lotuta dauden ingurumen- edo gizarte-alderdiak barne hartu ahalko dituzte** (SPKLren 145.2).
- ➡ Izaera sozial, etiko edo ingurumeneko kontratua **gauzatzeko baldintza bereziek kontratuaren xedearekin lotuta** egon beharko dute beti (SPKLren 202.1. art.).

Ikusten dugunez, kasu guztietan kontratuaren xedearekin lotuta egon behar da, eta berdin dio zer klausula sartuko dugun. Horrenbestez, kontratuaren xedean bertan giza eskubideei eta enpresei buruzko nazioarteko arautegiak esplizituki aipatzen duen erreferentzia bat agertzea proposatzen dugu, eta berariaz, mineralen hornidura arduratsuan nahitaezko diligenziari buruzko ELGaren zuzentzariak ere jasotzea. Esaterako:

Kontratuaren xedea

«Tecnologia arduratsua hornitzea*, eta haren fabrikazioan ELGaren Nahitaezko Eginbidearen Gida, Gatazka edo Arrisku handiko Eremuetako Mineralen Kate Arduratsuetarako Gidan ezarritako zuzentzariari jarraitzea**»

«Fabrikazioan giza eskubideei buruzko nazioarteko arautegiei, bai Lanaren Nazioarteko Erakundearen Nazioarteko Konbentzioei, bai ELGaren Nahitaezko Eginbidearen Gida, Gatazka edo Arrisku handiko Eremuetako Mineralen Kate

Arduratsuetarako gidak ezarritako zuzentzariari jarraitu dien teknologia arduratsua hornitzea»

* Hemen, zer motatako gailu elektronikoa erabiltzen den zehaztu liteke (ordenagailuak, telefono mugikorak eta bestelakoak)

** Hemen deskarga daiteke:

<https://mneguidelines.oecd.org/mining.htm>

1.2. Espedientearen beharrak justifikatzen ditugu

Horrez gain, gogoratzen dugu kontratu publikoei buruzko arautegiak, pleguak dagozkion prestazioak kontratatuz ase behar dituen beharrak zehaztu behar dituela, eta kontratuaren xedearekin duen harremanak zuzena, argia eta proportzionala izan behar duela. Beraz, espedientearen jasotzeko beharretan testu hau edo antzekoa den beste bat zehaztea aholkatzen dugu:

Deskribatutako produktu teknologikoan hornitzeaz eta eskura jartzeaz gain, Administrazio Publiko honek ase behar dituen beharren lehentasuna da produktu horiek, bere osagai mineralen artean eremu gatazkatsuetatik etorritako mineralak badituzte, ELGAK ezarritako hornidura arduratsuari buruzko zuzentarauei jarraituz fabrikatuta egotea.

Aede horretarako, enpresa hornitzaileek eztainuaren, tantalioaren, wolframioaren eta urrearen hornidura-katean nahitaezko diligenza betetzen dutela egiaztatu beharko dute, produktu ziurtagiriaren bidez, edota ELGAK gatazka-eremuetatik eta arrisku handiko eremuetatik datozen mineralen hornidura arduratsurako ezarritako baldintzetan nahitaezko diligenza betetzen dutela egiaztatuz.

1.3. Merkatuaren aurretiko kontsultak egiten ditugu

Gida honen lehen zatian nahitaezko diligenza betetzen den egiaztatzeko, eta azken batean, enpresek beren hornidura-kateetan giza eskubideak urra ez daitezen arriskuak kudeatzeko konpromisoa hartzen dutela bermatzeko, zer proba balora daitezkeen azaldu dugu.

Bigarren zati honetan, ikuspegi juridikotik, kontratazio arduratsuko klausulekin eta irizpideekin sor daitezkeen zalantzak argituko ditugu. Baina garrantzitsua ere bada dagoen eskaintzaren inguruan normalean sortzen diren beste mota bateko zalantzak argitzea. Ba al dago produktu bat (telefono mugikorra, ordenagailua edo beste batzuk) ezaugarri horiekin ekoiztu eta komertzializatzen duen enpresarik? Eta baldintza horiek eskatzen badituzte, inor aurkeztuko al da lizitaziora? Edo, bestela, ezin genezake eskaera handiagoak ezarri?

Bada, zorionez, kontratu publikoen legeak gaur egun dagoen tabuetako batekin amaitu du: aldeztu aurretik, izan daitezkeen lizitatzailerekin hitz egitea. Orain, hori egiten uzteaz gain, merkatuaren kontsultatzea eskatu ere egiten da, lizitazioko plegua ahalik eta hoberen idazteko. Ikus dezagun lehendabizi legezko testua eta gero haren aukerak eta eraginak aztertuko ditugu.

115. artikulua. Merkatuaren aldeztu aurretiko kontsultak.

1. Kontratazio-organoek merkatu-azterketak egin eta jardunean diren operadore ekonomikoei egindako kontsultak zuzendu ahalko dituzte, lizitazioa zuzen prestatzeko eta operadore ekonomiko horiei prozeduran parte hartzeko eskatuko dituzten planei eta baldintzei buruzko informazioa emateko helburuarekin. Horregatik, kontratazio-organoak hirugarrenen aholkularitzaz baliatu ahalko dira, eta adituak edo agintari independenteak, elkargo profesionalak, edo, salbuespen gisa, merkatuan jardunean diren operadore ekonomikoak izan ahalko dira. Kontsulta hasi aurretik, kontratazio-organoak haren xedea argitaratuko du Sektore Publikoaren Kontratazio Plataforman edo autonomia-mailan baliokidea den informazio-zerbitzuan kokatuta dagoen kontratatzailearen profilean, kontsulta hasten denean, eta kontsultan nortzuek parte hartuko duen adieraziko du, interesa izan dezaketen guztiek sarbidea izan eta ekarpenak egiteko aukera izan dezaten. Halaber, aukeratzen diren kanpoko aholkulariak hautatzeko arrazoiak ere argitaratuko dira kontratatzailearen profilean.
2. Aurreko atalean aipatzen den aholkularitza lizitazio prozedura antolatzeke erabiliko du kontratazio-organoak, eta baita prestatzen den bitartean, betiere lehia ez badu faltsutzen edo ez bazterkeriako eta gardentasunaren printzipioak ez baditu urratzen.

Egindako kontsulten ondorioz ezingo da atera kontsulta egindako baten ezaugarri teknikoetara bakarrik egokitzen den kontratu-xede jakin eta mugatu bat. Azterketen eta kontsulten emaitza, hala badagokio, ezaugarri generikoen sarreran, eskaera orokorretan edo interes publikoak hobeto asetzea bermatzen duten formula abstraktuetan zehaztu beharko da, eta egindako kontsultek ezin dute inola ere abantailarik ekarri kontratuaren esleipenean, parte hartzen duten enpresen artean.

3. Kontratazio-organoak artikuluan honetan adierazten diren kontsultak egindakoan, zer jarduera egin dituen jasoko ditu txosten batean. Zer azterketa egin diren, haien egileak, kontsultatutako erakundeak, egin zai-zkien galderak eta haiei emandako erantzunak jasoko dira txosten batean. Txostena arrazoitua izango da, kontratazio-espedientearen barruan egongo da, eta baldintzen pleguen publizitate-betebehar berak izango ditu. Dena den, kontratazio-organoaren kontratatzailearen profilean argitaratuko da.

Artikulu honetan adierazten den kontsulta-prozesuan zehar, beste parte-hartzaile batzuek egindako proposatutako irtenbideak ezingo die esan kontratazio-organoak parte-hartzaileei; berak bakarrik ezagutuko ditu.

Oro har, kontratazio-organoak pleguak egitean, egindako kontsulten emaitzak kontuan hartu beharko ditu; bestela, ez dira jasoko arrazoiak aurreko paragrafoan aipatzen den txostenean.

Kontsultan parte hartzeak ez du eragozten, gero, hala badagokio izapidetzen duen kontratazio-prozeduran esku hartzea.

Zenbait ondorio aterako ditugu:

1. Kontratazio-organoak edo Administrazio kontratatzaileak merkatuaren aurretiko kontsultak egitea arren gomendatzen dugu, produktu elektronikoak eskuratzea barne hartzen duen lizitazio bakoitzerako egokienak diren gatazka-mineralen horniduraren inguruan beharrezko diligentzia klausulak kontuan har daitezen.
2. Horrela, izan daitekeen enpresa lizitatzailerak edo hornitzaileak kontsultatuta, enpresek ELGAK ezarritako nahitaezko diligentziako zuzentarauak ezagutu eta betetzen dituzten, eta kontratuan jasotzen diren produktuek zuzentzarau horiek kontuan hartzen dituzten jakiteko.
3. Horrez gain, arautegiari esker, hirugarrenak, adituak edo agintari independenteak ere kontsulta ditzakegu. Horrela, GKEk eta **ALBOAN**ek ziur asko oso erabilgarria izango den aholkularitza-zerbitzu bat eman ahaliko dute.
4. Legezko baldintzak artikuluek ezartzen dituzte, hala nola kontsulten xedea kontratatzailearen profilean argitaratzea, kontsultatutako hirugarrenen izenak edo kanpoko aholkulariak, egindako jarduera eta azterketei, kontsultatutako erakundeei, egindako galderei eta emandako erantzunei buruzko kontratazio-espedientearen barruan egongo den txosten bat egitea.
5. Kontsultan parte hartzeak ez du eragozten, gero, hala badagokio izapidetzen duen kontratazio-prozeduran esku hartzea. Hala ere, bistakoa denez, parte-hartzeak ezin du inola ere ekarri lehiakideak baztertzea, ezta abantailarik ekartzea ere aurretiko kontsultetan parte hartzen duten enpresetarako.

Sektore publikoaren kontratazioa. Merkatuaren aurretiko kontsulta

Eusko Jaurlaritzako Lehendakartzaren Idazkaritza Nagusiaren iragarkia. Horren bidez, merkatuaren aurretiko kontsulten deialdia onartzen da, suhiltzaileentzako ehun telefono mugikor hornitzeko.

Aurretiko kontsulten xedea eskaerak, ezaugarri teknikoak, etiketak edo ziurtagiriak, esleitzeko irizpideak eta gauzatzeko baldintzak ezartzea izango da, inportatzaile arduradunek telefono mugikorraren ekoizpena behar bezalako bermeekin eta hornidura-katean nahitaezko diligenziarekin egin dutela egiaztatzeko, batik bat gatazka-eremuetatik eta arrisku handiko eremuetatik etorritako mineralak (eztainua, tantalioa eta wolframioa, haien mineralak eta urrea) erabiltzean.

Parte hartu nahi duten enpresa lizitatzailerik egin ditzakete aurretiko kontsultak, aldez aurretik eskatzen badute. Aurretiko kontsultetan parte hartu nahi duten erakunde, aditu eta agintari independenteek ere egin ahalko dute, aldez aurretik eskatzen badute.

"Deialdi horren baldintzak esteka honetan kontsulta daitezke: www.es

..... (n), 20 ko ko (e)an".

1.4. Lote bat edo batzuk "Sozialki Arduratsua den Teknologia" gisa adieraziko ditugu

Kontratua loteetan banatzeko aukera kontratu publikoen legedi berriaren beste nobedade interesgarrietako bat da. Eta aztertuko dugunez, aukera hori ezin hobeto egokitzen da, eta ikuspegi tekniko batetik, gatazka-mineralen horniduran teknologia arduratsua sustatzeko dugun helburua erraztu egiten du.

2014ko otsailaren 26ko Europako Parlamentuko eta Kontseiluaren 2014/24/EB Zuzentarauaren 46. artikulua, kontratazio publikoari buruzkoak, eta Sektore Publikoaren Kontratuen Legearen 99. artikulua, loteak arautzen dituzte. Hauxe dalegezko testua:

99. Artikulua. Kontratuaren xedea.

3. Kontratuaren xedeak zatikatzea onartzen badu, zati bakoitza loteetan banatuz egin ahalko da.

Kontratazio-organoak kontratuaren xedea loteetan ez banatzea erabakitzen badu, behar bezala justifikatu beharko du espedientearen, obrak edo zerbitzuak emateko kontratuetan izan ezik.

Kontratuaren izaerak edo xedeak uzten badute, zati bakoitza loteen banatzeko aukera eman beharko da. Horrela, loteak gorde ahalko dira, laugarren xedapen gehigarrian xedatutakoarekin bat.

Hala ere, kontratazio-organoak ezingo du kontratuaren xedea loteetan banatu baliozko arrazoiak badaude. Horiek behar bezala justifikatu beharko dituzte espedienteetan, obren emakida kontratuetan izan ezik.

Dena den, baliozko arrazoitzat hartuko dira, kontratuaren xedea loteetan ez banatzea justifikatzeko, honako hauek:

- Kontratuaren xedea loteetan banatzeak lehia justifikatu gabe murrizteko arriskua ekartzea. Irizpide hori aplikatzeko, kontratazio-organoak aurretiko txostena eskatu beharko dio lehiakideak defendatzeko agintaritzari, inguruabar horren ingurua irizpena eman dezan.
- Kontratuaren xedean barne hartzen diren prestazioak bereiz egiteak zuzen gauzatzeko zailteza ikuspegi teknikotik; edo kontratua zuzen gauzatzeko arriskua haren xedetik etortzea, prestazioen gauzatzeko koordinatzea ekartzen duelako. Horrela, loteetan banatzen denez, eta kontratista desberdinek gauzatzen dutenez, ezingo litzateke egin. Bi aukera horiek, hala badagokio, behar bezala justifikatu beharko dira espedientearen.

4. Kontratazio-organoak kontratuaren xedea loteetan banatzen duenean, muga hauek sartu ahalko ditu, espedientearen behar bezala justifikatuz:

- a) Hautagai edo lizitatzailerak aurkez dezakeen lote kopurua mugatu ahalko du.
- b) Lizitatzailerak bakoitzari esleitu ahal zaion lote kopurua ere mugatu ahalko du.

Legezko testua aztertuko dugu:

- ➡ Loteei buruz ari gara kontratu bat zatikatzen dugunean.
- ➡ Eta, legez, halakotzat hartzen dira berez unitate funtzional bat gisa eratzen direnean, eta unitate hori bereiz erabili edo aprobetxatu ahal denean.
- ➡ Loteak erabat legezkoak dira, eta ez dira ezta salbuespen bat ere; araua dira, esleitzen duten agintariek kontratuak loteetan zatikatu behar dutelako, bestela, zergatik ez duten horrela egiten justifikatu beharko dute.
- ➡ Kontratazio-organoak loteen tamaina eta kopurua erabaki ditzake.
- ➡ Pleguek lizitatzailerak bera esleipenduna izan daitekeen edo parte har dezakeen lote kopurua muga dezakete.

Eta orain bere aplikazio praktikora joango da, bi kasu proposatuz:

1. Gailu teknologiko askoren erosketa edo hornidura ekartzen duten kontratuak.

Autonomia-erkidego batek edo udal batek ehun ordenagailuren hornidura lizitatuko du. Hornitutako diren produktu teknologiko guztiak nahitaezko diligentzia-sistema bat edo ELGaren zuzentzaileekin bat datorren "gatazka-mineralen" politika bat duten enpresek ekoiztea gustatuko litzazuke, baina uste dugu eskaera horiek ordenagailu kopuru jakin batean eskatu beharko liratekeela.

Horrela, gutxienezko ordenagailu kopurua (5?, 10?, 20?) duen lote bat adieraziko dugu, eta "sozialki arduratsuak diren produktu teknologikoen (telefono mugikorrek edo ordenagailuak) lotea" esango diogu. Hor, aurrerago adieraziko ditugun esleipen-irizpideak barne hartuko ditugu.

2. Helburu mistoa edo ezaugarri nagusi eta osagarriak dituzten kontratuak.

Esaterako, Parlamentu batek banda zabaleko komunikazio-sare baten, ADSL sarbideak, IP telefonia finkoa eta IP telefoniaren, 50 telefono mugikorrak, 50 tabletak eta 50 ordenagailu eramangarrien kontratazioa lizitatuko du.

Batetik, kontratuan zenbait elementu barne hartzen dira, eta elementu horietako batzuk ez dira guztiz egokiak "mineralen hornidura arduratsuekin" lotutako irizpideak barne hartzeko, hala nola zuntz optikoaren bidez banda zabala kontratatzea, ADSLko bigarren mailako sarbideak, IP telefonia finkoa eta IP telefonia.

Kasu honetan, aurreko kasuan bezala, zenbait lote egitea proposatzen dugu telefonia mugikorren terminalak, tabletak eta ordenagailu eramangarriak hornitzeko, "Sozialki arduratsuak diren produktu teknologikoen loteak" gisa. Bestalde, gida honetan adierazitako ezaugarriak ezarriko ditugu.

Produktuak lote honetan sartu ahal izateko, TCO eta horren baliokidea den ziurtagiri bat izan beharko dute, enpresa fabrikatzaileak mineralen hornidura arduratsuari buruzko ELGaren zuzentzaileak betetzen dituela egiaztatzen duena. Bestela, telefonia mugikorraren erosketaren

kasuan, Fairphone,⁶ terminalen erosketak baloratu ahalko da, bere osagaiek erabiltzen duten ez-tainuaren, tantalioaren, wolframioaren eta urrearen jatorria egiaztatu duen merkatuko modelo bakarra delako.

Loteak ezarritik, gatazka-mineralik ez duten produktu teknologikoen erosketak publikoak pixkanaka eta zuhurtasunez aztertzen dugu, izan ere, ondorioak ateratzeko lehen esperientzia bat izateko aukera ematen digu, etorkizuneko lizitazioak garatzeko abiapuntu bat gisa.

Horrez gain, berariazko loteak "sozialki arduratsua den teknologia" gisa ezartzeak, kontratu osoaren zati txiki batean eskaera eta ezaugarri zehatz batzuk sartzeko aukera ematen digu, zerbitzu osoan eragin gabe.

Bereziki barne har ditzakegu zerbitzu osoan sartuko bagenitu, esleipena desitxuratu lukeen esleipen irizpideak, baina lote batean bakarrik aplikatu bagenitu, enpresen erantzukizun sozialeko baldintzetan eskaintza hobea lortzeko aukera emango liguketenak, hornidura-katean nahitaezko diligentzia erabiltzeari dagokionez. Horrez gain, hornituko diren produktu teknologikoen mineralak erauztean, ekoiztean eta komertzializatzean lan baldintzak eta giza eskubideak ere bermatuko lirateke.

Lizitazio iragarkia. Euskal herriko aldizkari ofiziala

"Telefonia finkoko, telefonia mugikorrek eta datuen -banda zabala, adsl zerbitzuak eta telefono mugikorrek hornitzea Eusko Legebiltzarreko"

Iragarkiaren oinarritzeko datuak

Deitzailea: Eusko Legebiltzarra

Kontratazio-organoa: Legebiltzarreko mahaia

Kontratu mota: Hornidura

Izapidetza eta prozedura: Arrunta eta irekia

Kontratuaren xedea: Komunikazio-sarearen hornidura banda zabalaren bidez, ADS sarbideak, IP telefonia finkoa eta IP telefonia, 50 telefono mugikor hornitzea, baldintza tekniko berezien pleguan zehaztutakoaren arabera.

Balioetsitako zenbatekoa, BEZik gabe: 70.000,00 €

Parte hartzeko eskaerak edo eskaintzak aurkezteko epea: 2017/12/06tik 2017/12/23ra

Argitaratze-data: 05/12/2017

Gauzatzeko epea 12 hilabete.

Lotea banatzea: Bai, hiru lote.

1. lotea: Telefonia finkoa eta Internet.

1. lotearen zenbatekoa: 38.000,00 euro

CPV: 64200000 - Telekomunikazio zerbitzuak

2. lotea: Telefonia mugikorra.

2. lotearen zenbatekoa: 10.000,00 euro

CPV: 64200000 - Telekomunikazio zerbitzuak

3. lotea: Terminal mugikorrak.

2. lotearen zenbatekoa: 22.000,00 euro

CPV: 32250000-0 Telefono mugikorrak

Esleitzeko irizpideak: 1. eta 2. loteak: irizpide bakarra prezioa. Eskaintza ekonomikorik abantailatsuenak.

3. lotea. Hainbat irizpide. Irizpide objektiboak (Eskaintza ekonomikoa: 65 puntu arte. Gizarte-irizpideak: 25 puntu arte. Ingurumen irizpideak: 10 puntu arte).

Pleguak eta dokumentazio osagarria: Pliego de cláusulas telefonía fija-móvil.pdf

Harremanetarako pertsona:

Eskaintzen irekitzea: Helbidea, data eta ordua:

6 <https://www.fairphone.com/en/>

2. Klausulak sartzen ditugu

Aurrera jarraitzen dugu pleguarekin, eta kontratuaren xedea finkatuta, espedientean asetzeko beharrak aipatuta, aurretiko kontsultak eginda edo berariazko loteren bat ezarrita, pleguetan sartzeko egokienak diren klausulak finkatzea egokia da. Eta une hau helduta, bi aukera proposatzen ditugu:

1. Hain zorrotza ez den maila bat, «sozialki arduratsua den teknologiarekin» zerikusia duten ezaugarriak borondatezko aukera izan daitezen lizitatzailerentzat, kasu honetan esleipen irizpideen biez. Enpresa lizitatzailerak libreaki erabaki ahalko dute aukeratzea edo ez.
2. Maila zorrotz bat, «sozialki arduratsua den teknologia» bat definitzeko erabiltzen ditugun irizpideak nahitaezkoak direla adieraziz. Aukera hori gauzatzeko baldintza berezi gisa eta kaudimen teknikoko irizpide bat gisa proposa dezakegu. Bi kasuetan ondorioa bera izango da.

2.1. Oinarritzko eskaera maila: esleitzeko irizpideak

Kontratu publikoen lizitazio eta esleipen prozeduraren fase garrantzitsu batean gaude: esleitzeko irizpideak zehaztu eta deskribatuz gero, lizitatzaileren proposamenak ebaluatu eta eskaintza hobeto zehaztu ahalko dira, hau da, errazagoa izango da kontratuaren enpresa esleipenduna baloratzea eta aukeratzea.

Esleitzeko irizpideetan teknologia arduratsuekin zerikusia duten klausulak barne hartzeko erabakia estrategikoa eta zuhurra da, eta hori da guk lehenesten dugun aukera, arrazoi hauengatik:

- f. Bere kategorizazio juridikoa dela eta, esleitzeko irizpideak borondatezkoak dira. Hau da, ez zaie ezartzen enpresei betebeharrak, ez eta gutxieneko estandar zorrotzik. Saritzen duen pizgarria da, eta gure kasuan enpresa fabrikatzaileak saritzen dituzte, hornidura-kateetan arriskuak kudeatzearekin zerikusia duen nahitaezko diligentziari buruzko ELGA zuzentarauak betetzen badituzte. Izan ere, horrela, produktu elektronikoen kontratazioak funtsezko eskubideak ez dituela urratzen bermatzen dio Administrazioari.
- g. Esleitzeko irizpideek ez diote eskatzen kontratazio-organoari merkatu-azterketa zorrotz bat egitea, aurretiko kontsultak ezartzea edo ezaugarri horiek dituzten produktuak dauden zehaztasunez jakitea, izan ere, ezarritako esleipen-irizpideen arabera proposamen bat aurkezten duen enpresarik badago, ezarritako puntuazioa lortuko du. Bestela, enpresek ez dute puntuaziorik lortuko, eta kasu horretan, lizitazioan ez du eraginik izango, berdin bideratzen jarraituko da, proposatutako klausulak sartuko ez balira bezala.
- h. Azkenik, eskatutako ezaugarriak dituzten produktuak eskaintzen dituen enpresarik ez badago, edo ezarritako puntuak ezin baditu lortu, esleitzeko irizpide horiek eragin positiboa izango lukete, oso mezu garrantzitsua igortzen ari garelako enpresa hornitzaileentzat. Horrela, askok beren politikak aldatu beharko dituzte hornidura-katean, etorkizuneko lizitazioekin horrekin puntuak lortuko dituztelako.

Zentzu horretan, esleitzeko irizpide gisa gizarte-klausulak sartzeak ez luke zalantzarik sortu behar ikuspegi juridikotik edo legezko ikuspegitik. Izan ere, Sektore Publikoaren Kontratuen Lege berriak bere aplikazioa hedatu du, eta kasu jakin honetarako nobedade interesgarriak gehitu ditu. LEuropako Parlamentuko eta Kontseiluko kontratazio publikoari buruzko 2014ko otsailaren 26ko indarreko 2014/24/EB zuzentarauak, 67. artikuluan, kontratuaren esleitzeko irizpideen artean gizarte- eta ingurumen alderdiak barne hartzeko aukera adierazten du. Eta horrela adierazten du Sektore Publikoaren Kontratuen Lege berriaren 145. artikuluan ere bai (letra larria guk jarri dugu). Hauek dira alderdirik esanguratsuenak:

Legearen artikuluetan aipatzen diren «lan-baldintzak», «laneko osasunaren eta segurtasunaren babesak»; «irizpide etikoak eta gizarte-erantzukizuneko irizpideak aplikatzea»; «bidezko merkataritza» eta bestelakoak bat datoz gure proposamenarekin, mineralen hornidura arduratsuari buruzko ELGA Gidak berariazko neurriak identifikatu eta ematen dituelako giza eskubideen urratze hauekin lotutako arriskuak kudeatzeko.

145. artikulua. Kontratua esleitzeko baldintzak eta irizpide motak.

1. Kontratuak esleitzeko, esleipen irizpideen aniztasunaz baliatuko da, kalitate-prezio erlaziorik onenaren arabera.

...

2. Kalitate-prezio erlaziorik onena irizpide ekonomiko eta kualitatiboen arabera ebaluatuko da.

Kontratazio-organoak kalitate-prezio erlazioa hobeto ebaluatzeko ezartzen dituen irizpide kualitatiboek ingurumen- edo gizarte-alderdiak barne hartu ahalko dituzte, kontratuaren xedearekin lotuta, artikulua honen 6. atalean ezarritako moduan. Besteak beste hauek izan daitezke:

1.- Kalitatea, balio teknikoa barne hartuz, ezaugarri estetikoak eta funtzionalak, irisgarritasuna, diseinu unibertsala edo erabiltzaile guztientzako diseinua, **gizarte-ezaugarriak**, ingurumen ezaugarriak eta berritzaileak, eta komertzializazioa eta baldintzak.

...

*Kontratuaren gizarte-ezaugarriak, besteak beste helburu hauei buruzkoak izango dira: gaitasun ezberdinak duten pertsonen, pertsona behartsuen edo kontratua gauzatzeko esleitutako pertsonen artean dauden talde ahuletako kideen gizarteratzea sustatzea, eta oro har, gaitasuna ezberdinak duten edo gizarretik baztertzeko arriskuan dauden pertsonen gizarteratzea eta laneratzea sustatzea; Enplegu Zentro Bereziekin edo Laneratze Enpresekin azpikontratatzea; kontratua gauzatzean aplikatzen diren genero-berdintasunerako planak, eta oro har, gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna; emakumezkoen kontratazioa sustatzea; laneko bizitza, norberaren bizitza eta familia-bizitza bateratzea; **lan eta soldata baldintzak** hobetzea; enpleguan egonkortasuna lortzea; kontratua gauzatzeko pertsona gehiago kontratatzea; lantokian osasuna eta segurtasuna babestea eta prestatzea; kontratuaren prestazioan **irizpide etikoak eta gizarte erantzukizuneko irizpideak aplikatzea**; edo **kontratua gauzatzen den bitartean bidezko merkataritzan oinarritutako produktuak hornitzeari edo erabiltzeari buruzko irizpideak.***

9/2017 Legeak nobedade interesgarriak ematen ditu eta zenbait gai garrantzitsu argitzen ditu:

1. Aurretik aztertu dugunez, **lege berriak esleipen irizpideak kontratuaren xedearekin lotuta egotea eskatzen jarraitzen du, baina lotura hori zehaztu egiten du, interpretazio murriztaileak saihesteko asmoarekin.** Hori horrela, esleitzeko irizpide bat kontratuaren xedearekin lotuta dagoela esango da kontratu horren arabera egin behar diren prestazioak barne hartzen baditu, edozein arlotan eta bere bizitza-zikloaren edozein etapetan" (145.6. art.). Hau da, kontratuaren prestazioekin zerikusia duen edozein gai barne hartzen du, edozein arlotan, bere bizitza-zikloaren edozein etapetan, baita bere funts materialaren barruan ez badago ere, berariazko ekoizpen-prozesuan, edo ingurumenaren eta gizartearen ikuspegitik iraunkorrak eta bidezkoak diren ekoizpen eta komertzializazio moduetan.
2. «Ekonomikoki abantailatsuena den eskaintzaren» kontzeptua gainditu da. Askotan arazoak eta txosten negatiboak sortu ditu zenbait gizarte eta ingurumen irizpide barne hartzean, translazio ekonomikoa izatea eta eskaintza hobe ekartzea eskatzen zelako.

Hala ere, gogoratu behar dugu «ekonomikoki abantailatsuena den eskaintzaren» kontzeptua aldatu dela 2014/24/EB zuzentarauetan. Horrela zehazten du 89. kontuan hartutakoan: «Gaur egun, 2004/7/EB eta 2004/18/EB zuzentzaruetan "ekonomikoki abantailatsuena den eskaintza" gisa ezagutzen diren esleipen irizpideetan nahasterik saihesteko, terminologia desberdina erabiliko dugu kontzeptu hori barne hartzeko: kalitate-prezio erlaziorik onena.

Hain zuzen, Sektore Publikoaren Kontratuen Lege berriak bere gain hartu du izendatzeko modu hori. Horrela, «ekonomikoki abantailatsuena den eskaintza» adierazpena kendu eta 145.1. artikuluan

argitzeko balio duen argibide gisa barne hartu du: «Kontratuen esleipena egiteko hainbat esleipen-irizpide erabiliko dira, kalitate-prezio erlaziorik onena kontuan hartuz», Erkidegoko Zuzentarauarekin bat etorritz.

3. Azkenik, kontratu publikoen arautegiak ezartzen dituen esleipen irizpide nagusiak aipatu nahi ditugu: irizpide objektiboak (edo kuantitatiboak, edo aritmetikoak, edo matematikoak, auto automatikoak); eta irizpide subjektiboak (edo kualitatiboak, balio-judizioaren mende daudenak).

Gida honetan, teknologia arduratsuarekin zerikusia duten gizarte-alderdiak aplikatzeko, irizpide objektibo edo automatikoak proposatuko ditugu, SPKLren 146.2. artikulua proposatzen dituen baldintzen arabera:

“Hainbat esleipen irizpide erabiltzen badira, zehaztean, ahal bada, kontratuaren xedearen ezaugarrien erreferentzia ematen dutenei lehentasuna emango zaie, pleguetan ezarritako formulak aplikatuz, lortzen diren zifra edo ehunekoen bidez balora daitezkeenei”.

Aukera hori oso garrantzitsua da: oso garrantzitsua da kontratazio-organismoak eta kontratazio-mahaiak lana erraztea, proposatutako irizpideak ebaluatu ahal izateko, gaiaren inguruko ezagutza konplexurik behar izan gabe, eta gutxienez hiru kide dituen prestakuntza egokiko adituez osatutako batzorde bat edo SPKLren 146.2.). artikulua ezartzen duen erakunde tekniko espezializatu bat izendatu behar izan gabe. Hala ere, kontratazio-mahaiak egokitzen jotzen badu, beharrezkotzat jotzen dituen txosten teknikoak eskatu ahalko ditu, SPKLren 150.1. eta 157.5. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Beraz, orain proposatuko ditugun irizpideak pleguetan jaso daitezke, eta objektiboak edo automatikoak dira, beraz, kontratazio organismoak edo mahaiak errazagoa izango dute ebaluatzea eta baloratzea. Lizitatuzaileak eskatutako agiriak aurkezteko konpromisoa hartzen badu (ziurtagiria, erantzukizunpeko adierazpena, edo nahitaezko diligenzia betetzen duela egiaztatzeke beste baliabide batzuk), aurreikusitako puntuazioa ematea; bestela, puntuazio hori ez ematea.

Informazio hori errazago eskuratzeko, Europako Batzordeak, mineralen hornidura arduratsuari buruzko 2017/821 EB Arautegia ezartzeko, gardentasuneko datu-base bat sortu duela jakinarazi du. Hor, enpresa fabrikatzaileek eta beste batzuek nahitaezko diligenziaren betetzen duten ala ez adierazi ahalko dute. 2019. urtetik aurrera erabili ahal izatea espero da.

Kontratua esleitzeko gizarte eta ingurumen irizpideak. Oinarrizko maila

Sektore Publikoaren Kontratuen Legearen 145.g). artikulua arabera, kontratu honetan, kontratua esleitzeko gizarte- eta ingurumen-irizpideak sartzen dira, gatazka-eremuetatik (edo arrisku handiko eremuetatik) etorritako mineralen (eztainua, tantalioa eta wolframioa, haien mineralak eta urrea) hornidura-katean nahitaezko diligenza bermatzeko helburuarekin, Europar Batasuneko merkatuan produktu elektronikoak inportatu, fabrikatu edo banatzen dituzten enpresa lizitatzailleen artean.

1. 5 puntu arte emango zaizkio, beherago adierazitako baliabideen bidez, horniduraren edo kontratuko xedearen fabrikazioan mineralen hornidura arduratsuari buruzko ELGA Gidan ezarritako nahitaezko diligenza zuzentzarauak jarraitu dituela egiaztatzen duen enpresa lizitatzaileri.

2. Puntuazioa metatuko da, eta enpresa lizitatzailerek azpi-irizpide hauetako bat edo batzuk aukeratu ahalko dituzte. Zehazki, hiru irizpide hauetako bakoitzak egiaztatzeagatik dagokion puntuazioa lortuko du, zehaztutako moduan:

- 2 puntu, enpresa fabrikatzaileak gatazka-eremuetatik edo arrisku handiko eremuetatik datozen mineralen hornidura kate orokorrak kudeatzeko politika bat jasotzen duen ziurtagiria duenean, ELGA Gidaren II. eranskinean agertzen denaren modukoa, edo gatazka-mineralen hornidura arduratsuari buruzko arategiekin bat datorren politikaren ziurtagiria (2017/821 EB Arautegiaren modukoa), edo, kontratuaren xede diren produktuen kasuan, TCO Certified ziurtagiria edo horren baliokidea.

Hori egiaztatzeko erabiltzen den informazioak sarbide publikokoa izan beharko du,

eta Europako Batzordeak ezarritako garrantasuneko datu-basean jasota egon beharko du prest dagoenean (2019tik aurrera izatea espero da).

- 2 puntu, enpresa fabrikatzaileak hornidura arduratsuko nahitaezko diligenza ELGA zuzentzarauarekin bat datozen industria-programetako batean parte hartzen duela egiaztatzen badu.

Baldintza hori egiaztatzeko, enpresak *multistakeholder* ekimenek, hala nola European Partnership for Responsible Mining (EPRM), Public/Private Alliance for Responsible Mining (PPA), Responsible Minerals Initiative (RMI), Better Sourcing Programme (BSP) edo Europako Batzordeak halakotzat hartutako beste edozein ekimen baliokidek ezarritako industria-programetako batean parte hartzen duela egiaztatu ahalko da (zerrenda hori 2019tik aurrera argitaratzea espero da).

- 1 puntu, enpresa fabrikatzaileak hornitzen duen edozein gatazka-eremuetan edo arrisku handiko eremuetan hornidura arduratsuko programa edo ekimenen bati diru-laguntza ematen badio, meatzarien eta tokiko erkidegoen baldintza sozial eta ekonomikoak hobetzeko, hornidura-kate egiaztagarriak bermatzeko eta eskualdean meatze-gobernantza sustatzeko helburuarekin.

Baldintza hori egiaztatzeko, enpresa fabrikatzaileak xede horretarako ekindako programetako batean parte hartzen duela egiaztatu ahalko du, hala nola European Partnership for Responsible Mining (EPRM), Public/Private Alliance for Responsible Mining (PPA), Better Sourcing Programme (BSP), Solutions for Hope (SfH) ekimenek edo horien baliokidea den beste edozein ekimenak finantzatutako proiektuak.

Oinarrizko eskaera-maila honetarako proposatutako testua hurrengo atalean proposatzen dugunaren oso antzekoa da, gauzatzeko baldintza bereziak sartzea eztabaidatzen dugunean. Horrela da eta logikoa da, bi aukera proposatzen ditugulako kontratazio-organoentzat: konpromiso horiek nahitaezkoak izatea lizitatzailere guztientzat (gauzatzeko baldintza berezia), edo esleitzeko irizpide gisa eratzea, horrela, borondatezkoa izan daitezen. Lizitatzailerei dagokie proposatutako konpromisoak bere gain hartzen dituzten edo ez, eta horrek, aurreikusitako puntuazioa lortzea edo ez ekarriko du.

2.2. Eskaera mailarik handiena: nahitaezko irizpideak sartuz

Pleguak idaztean dagoen bigarren aukera lizitatzailer guztientzat nahitaezkoak diren betebeharrak ezartzea da. Hori, bi modutara egin dezakegu:

- ➡ **Gauatzeko baldintza berezi bat gisa.** Horrela, lizitazioan aurkezteagatik enpresa lizitatzailer guztiek berariaz onartuko dituzte teknologia arduratsuarekin zerikusia duten klausulak, beraz, geroago, kontratua gauzatzean edo ematean nahitaez bete beharko ditu enpresa esleipendunak.
- ➡ **Kaudimen teknikoko baldintza bat gisa.** Kasu horretan, adierazitako eskaerak aldeztatik betetzen dituzten enpresak bakarrik onartuko dira lizitaziorako.

Ikuspegi praktiko batetik, eta atal hau nahitaezkoa dela kontuan hartuz, ohar bat egitea komeni da:

Eskaera-maila handia adierazten ari gara, beraz, oso argi izan behar ditugu aukera eta proportzionaltasuna, aplikatuko ditugun klausulak nahitaez bete beharko direlako.

Beraz, ziurtatu beharko gara klausula horiek betetzen dituzten enpresa lizitatzailerak izatea.

2.2.1. Gauatzeko baldintza berezi bat gisa

Gizarte eta ingurumen arloko gauzatze-baldintza berezien legezkotasuna eztaba da, eta kontratu publikoen legedian berariaz adierazten da. Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko kontratazio publikoari buruzko 2014/24/EB Zuzentarauak 70. artikuluan arautzen ditu, eta Sektore Publikoaren Kontratuen Legeak 202. artikuluan egiten du. Honako hau da testua (letra larria guk jarri dugu):

Beraz, oso argi dago gauatzeko baldintza berezien legezkotasuna, eta artikuluetan adierazitako kasuetako

202. Artikulua. Gizarte, etika, ingurumen edo beste arlo bateko kontratua gauatzeko baldintza bereziak.

1. Kontratazio-organismoek baldintza bereziak ezarri ahalko dituzte kontratua gauzatzean, betiere kontratuaren xedearekin lotuta badaude, 145. artikuluari jarraituz, zuzenean edo zeharka bereizkeriazkoak ez badira, erkidegoko zuzenbidearekin bateragarriak badira eta lizitazioaren iragarkian eta pleguan adierazten badira.

Dena den, nahitaezkoa izango da administrazio-klausula berezien pleguan, gutxienez, gauatzeko baldintza berezietako bat ezartzea, atal honetan aipatzen direnen artean.

2. Gauatzeko baldintza horiek arlo hauei buruzkoak bereziki izan ahalko dira: ekonomia, berrikuntza, ingurumena eta gizarteak.

Besteak beste, helburu hauei jarraitzen dieten ingurumen-artikuluak bereziki ezarri ahalko dira: berotegi-efektuko gasen igorpenak murriztea, horrela, Ekonomia Iraunkorreko martxoaren 4ko 2011 Legearen 88. artikulua ezartzen duen helburua betetzen laguntzeko; kontratua gauatzeko eragin ditzakeen ingurumen balioak mantentzea edo hobetzea; uraren kudeaketa iraunkorragoa; energia berriztagarrien erabilera sustatzea; produktuaren birziklatzea eta ontzi berrerrabiltzarrien erabilera sustatzea; edo produktuak alea entregatzea eta ekoizpen ekologikoa sustatzea.

LGizarte edo enpleguari buruzko artikulua helburu hauetako batekin sartu ahalko dira: desgaitasuna duten pertsonen eskubideei buruzko Nazio Batuen Konbentzioan aitortutako eskubideak gauzatzea; legedi nazionalak eskatzen duena baino handiagoa den desgaitu kopurua kontratatzea; laneratzeko zailtasun bereziak dituzten pertsonen enplegua sustatzea, bereziki desgaitasunen bat duten edo gizartetik baztertzeko arriskuan dauden pertsonena, laneratzeko enpresen bidez; merkatu horretan gizonen eta emakumeen arteko desberdintasunak kentzea, lanean emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzen duten neurriak aplikatuz; emakumeak partaidetza handiagoa izatea lan-merkatuan, eta lana eta familia bizitza bateratzea; langabeziari aurre egitea, gazteena, emakumeena eta iraupen luzekoa bereziki; prestakuntza ematea lantokian; segurtasuna eta osasunaren babesa bermatzea lantokian eta aplikagarriak diren sektoreko eta lurraldeko hitzarmenak betetzea; laneko ezbehar-tasa prebenitzea; enplegurako estrategia koordinaturako ezartzen diren beste helburu batzuk, Europar Batasuneko Funtzionamenduko Itunaren 145. artikuluan ezarritakoa; edo ekoizpen-katean lan-eskubideak errespetatzen direla bermatzea, Lanaren Nazioarteko Erakundearen funtsezko Konbentzioak betetzen direla eskatuz, garatzeko bidean dauden herrialdeetako ekoizle txikiei laguntzea bilatzen duten kontuan hartuzkoak barne hartuta, izan ere, horiekin aldekoak diren merkataritza-harremanak daude, hala nola gutxieneko prezioa ordaintzea eta prima bat ematea ekoizleei, edo gardentasun eta trazabilitate handiagoa eskatzea merkataritza-kate osoan.

batzuk, trazabilitateari eta nahitaezko diligentziari buruzko baldintzak sartzearekin bat datorrela eta produktu teknologikoetan erabiliko diren gaztazka-mineralak ateratzen dituzten langileen baldintzak egiaztatzen ditugu.

- ➡ Ekoizpen-katean oinarritzko lan baldintzak errespetatzen direla bermatzea, Lanaren Nazioarteko Erakundearen funtsezko konbentzioak bete daitezela eskatuz.
- ➡ Merkataritza-kate osoan gardentasun eta trazabilitate handiagoa bermatzea.

Kontratua gauzatzeko baldintza bereziak.

Sektore Publikoaren Kontratuen Legearen 202.g) artikulua arabera, kontratu honetan izaera sozialeko gauzatze-baldintza bereziak sartzen dira, gatazka-eremuetatik (edo arrisku handiko eremuetatik) etorritako mineralen (eztainua, tantalioa eta wolframioa, haien mineralak eta urea) hornidura-katean nahitaezko diligenza bermatzeko helburuarekin, Europar Batasuneko merkatuan produktu elektronikoak inportatu, fabrikatu edo banatzen dituzten enpresa lizitatzailleen artean.

1. Enpresa lizitatzailleek horniduraren edo kontratuko xedearen fabrikazioan mineralen hornidura arduratsuari buruzko ELGA Gidan ezarritako nahitaezko diligenza zuzentzauekin jarraitu direla egiaztatu beharko dute beherago adierazitako baliabideen bidez.

2. Eduki hauetako baten ziurtagiri bat izan beharko da:

- Enpresa fabrikatzaileak gatazka-eremuetatik edo arrisku handiko eremuetatik datozen mineralen hornidura kate orokorrak kudeatzeko politika bat duen ziurtagiria, ELGA Gidaren II. eranskinean agertzen denaren modukoa, edo gatazka-mineralen hornidura arduratsuari buruzko arautegiekin bat datorren politikaren ziurtagiria (2017/821 EB Arautegiaren modukoa), edo, kontratuaren xede diren produktuen kasuan, TCO Certified ziurtagiria edo horren baliokidea.

Hori egiaztatze erabiltzen den informazioak sarbide publikokoa izan beharko du, eta Europako Batzordeak ezarritako gardentasuneko

datu-basean jasota egon beharko du prest dagoenean (2019tik aurrera izatea espero da).

- Enpresa fabrikatzaileak hornidura arduratsuko nahitaezko diligenza ELGA zuzentzauekin bat datozen industria-programetako batean parte hartzen duela.

Baldintza hori egiaztatze, enpresak multistakeholder ekimenek, hala nola European Partnership for Responsible Mining (EPRM), Public/Private Alliance for Responsible Mining (PPA), Responsible Minerals Initiative (RMI), Better Sourcing Programme (BSP) edo Europako Batzordeak halakotzat hartutako beste edozein ekimen baliokide ezarritako industria-programetako batean parte hartzen duela egiaztatu ahalko da (zerrenda hori 2019tik aurrera argitaratzea espero da).

- Enpresa fabrikatzaileak hornitzen duen edozein gatazka-eremuetan edo arrisku handiko eremuetan hornidura arduratsuko programa edo ekimenen bati diru-laguntza ematea, meatzarien eta tokiko erkidegoen baldintza sozial eta ekonomikoak hobetzeko, hornidura-kate egiaztagarriak bermatzeko eta eskualdean meatze-gobernantza sustatzeko helburuarekin.

Baldintza hori egiaztatze, enpresa fabrikatzaileak xede horretarako ekindako programetako batean parte hartzen duela egiaztatu ahalko du, hala nola European Partnership for Responsible Mining (EPRM), Public/Private Alliance for Responsible Mining (PPA), Better Sourcing Programme (BSP), Solutions for Hope (SfH) ekimenek edo horien baliokidea den beste edozein ekimenak finantzatutako proiektuak.

2.2.2. Kaudimen teknikoko irizpide bat gisa

Aurretik adierazitako gauzatze baldintza bereziak kontratua esleitutakoan bete eta egiaztatu behar badira ere, kaudimen teknikoko irizpidea aldeztatu aurretik ezarri behar da, enpresa lizitazioan onartzeko eta parte hartu ahal izateko ezinbesteko baldintza delako.

Horri dagokionez, nabarmendu behar dugu Sektore Publikoaren Kontratuen 9/2017 Legeak nobedade interesgarri bat barne hartu duela, eta dagokigun kontuarekin zuzenean lotuta dagoela:

89. artikulua. Hornidura-kateen kaudimen teknika.

1. Hornidura-kontratuaren, kontratazio-organismoak aukeratzen duen baliabide hauetako baten bidez egiaztatu beharko dute enpresaburuak kaudimen teknika:

g) Hornidura-katearen kudeaketa-sistemak adieraziz, Lanaren Nazioarteko Erakundearen funtsezko konbentzioak betetzen direla bermatzen dituztenak eta enpresaburuak kontratua gauzatzeko aplikatu ahalko dituen jarraipen sistemak barne.

Legediak kaudimen teknikoko irizpide gisa funtsezko eskubideak betetzen direla bermatzen duten hornidura-katearen kudeaketa sistemak onartzea aurrerapen handia eta berme juridikoa da, zalantzarik gabe. Eta gure proposamena babesten du, ELGA Gidak nahitaezko diligentziari buruz proposatukoaren moduko sistemak direlako.

Hala ere, legezkotasuna eztaba daezina den arren, zuhurtasunezko irizpide bati jarraituz sartu behar dira beti pleguetan, bereziki kasu hauetan:

- ➡ Merkatuan egindako eskaintzak, adierazitako ezaugarriak dituzten produktuen eskaintza bermatzen duela ziur gaudenean. Horren inguruan, merkatuaren aurretiko kontsulten erabilgarritasuna gogoratzen dugu.
- ➡ Lote bat "sozialki arduratsua den teknologia" gisa hartzen dugunean eta kaudimen teknikoko irizpideek kontratu osoaren zati zehatz eta partzial batean eragiten badute, eta horrez gain, merkatuan, eskatutako ezaugarriak eta baldintzak betetzen dituen eskaintza dagoela ziur bagoaude.
- ➡ Kontratazio publiko arduratsu baterantz aurrera joaten garen heinean, irizpide horiek dituen plegu bat esleitura daukagunean, eta behin esperientzia ebaluatuta, eskaera-mailan aurrera egin dezakegula uste badugu.

Idazteko proposamena:

Kaudimen teknikoko irizpide bat gisa.

1. Sektore Publikoaren Kontratuaren Legearen 89.1.g). artikulua arabera, kontratu honetan izaera sozialeko kaudimen teknikoko baldintza bat sartzen da, gatazka-eremuetatik (edo arrisku handiko eremuetatik) etorritako mineralen (eztainua, tantalioa eta wolframioa, haien mineralak eta urrea) hornidura-katean nahitaezko diligentzia bermatzeko helburuarekin, Europar Batasuneko merkatuan produktu elektronikoak inportatu, fabrikatu edo banatzen dituzten enpresa lizitatzailleen artean.
2. Lizitazioan parte hartzeko, enpresa lizitatzailleek horniduraren edo kontratuko xedearen fabrikazioan mineralen hornidura arduratsuari buruzko ELGA Gidan ezarritako nahitaezko diligentziako zuzentarauak jarraitu direla egiaztatu beharko dute beharago adierazitako baliabideen bidez.
3. Egiaztatze hori baliabide hauetako edozein bidez egin ahalko da:
 - Enpresa fabrikatzaileak gatazka-eremuetatik edo arrisku handiko eremuetatik datozen mineralen hornidura kate orokorrak kudeatzeko politika bat duen ziurtagiria, ELGA Gidaren II. eranskinean agertzen denaren modukoa, edo gatazka-mineralen hornidura arduratsuari buruzko arautegiarekin bat datorren politikaren ziurtagiria (2017/821 EB Arautegiaren modukoa), edo, kontratuaren xede diren produktuen kasuan, TCO Certified ziurtagiria edo horren baliokidea. Hori egiaztatzeko erabiltzen den informazioak sarbide publikokoa izan beharko du, eta Europako Batzordeak ezarritako gardentasuneko da-

tu-basean jasota egon beharko du prest dagoenean (2019tik aurrera izatea espero da).

- Enpresa fabrikatzaileak hornidura arduratsuko nahitaezko diligentziako ELGA zuzentarauetara bat datozen industria-programetako batean parte hartzen duela.
- Baldintza hori egiaztatzeko, enpresak multistakeholder ekimenek, hala nola European Partnership for Responsible Mining (EPRM), Public/Private Alliance for Responsible Mining (PPA), Responsible Minerals Initiative (RMI), Better Sourcing Programme (BSP) edo Europako Batzordeak halakotzat hartutako beste edozein ekimen baliokidek ezarritako industria-programetako batean parte hartzen duela egiaztatu ahalko da (zerrenda hori 2019tik aurrera argitaratzea espero da).
- Enpresa fabrikatzaileak hornitzen duen edozein gatazka-eremuetan edo arrisku handiko eremuetan hornidura arduratsuko programa edo ekimenen bati diru-laguntza ematea, meatzarien eta tokiko erkidegoen baldintza sozial eta ekonomikoak hobetzeko, hornidura-kate egiaztagarriak bermatzeko eta eskualdean meatze-gobernantza sustatzeko helburuarekin.
- Xede horretarako, enpresa fabrikatzaileak xede horretarako ekindako programetako batean parte hartzen duela egiaztatu ahalko du, hala nola European Partnership for Responsible Mining (EPRM), Public/Private Alliance for Responsible Mining (PPA), Better Sourcing Programme (BSP), Solutions for Hope (SfH) ekimenek edo horien baliokidea den beste edozein ekimenak finantzaturako proiektuak.

3. Arauak eta egiaztatze sistemak ezartzen ditugu. Jakinarazi eta argitaratzen ditugu.


Klausulen pleguak gure «legearen taulak» dira, eta gizarte eta ingurumen gaiak zuzen gauzatzeko eta kontrolatzeko funtsezkoak diren gai guztiak idatzi eta barne hartu behar ditugu hor. Han jasotzen ez denak edo behar bezala idazten ez dugunak ez du ezertarako balioko geroago.

Ondorioz, dekalogo hau proposatzen dugu:

1.	Sartutako klausula bakoitzak zehatza izan beharko du, eta berariazkoak, zehatzak eta egiaztagarriak diren konpromisoak edo betebeharrak jaso beharko ditu.
2.	Klausula bakoitzak dagokion sistema egiaztatze-unea izan beharko du dagokion pleguan. Beraz, pleguan bertan dagokion testua idatziko dugu, hauxe adieraziz: klausula bakoitza egiaztatzeko, agiri jakin batzuk aurkeztu beharko dira aurrez ezarritako epe batean.
3.	«Sozialki arduratsua den teknologiarekin» zerikusia duten klausula guztiak, bai gauzatzeko baldintza bereziak, bai esleitzeko irizpideak, funtsezko kontratuzko betebehartzat hartu beharko dira, SPKLren 211. artikulua f) letran adierazitako ondorioetarako. Horri esker, lehendabizi, lizitatzailerei ohartarazi ahal diegu nahitaez bete behar dutela, eta ez badute betetzen, kontratua indargabetu daitekeela, funtsezko betebeharretan ezarritakoaren arabera.
4.	Horrez gain, PCAPeK, gauzatzeko baldintza bereziak eta esleitzeko irizpideak ez betetzearen ondorioak finkatu behar ditu. Horrela, sozialki arduratsua den teknologiarekin zerikusia duten klausulak ez badiu betetzen, kontratazio-organoak zehapenak ezar ditzakeela adieraziko zaio. Zehapen horiek kontratuaren prezioaren ehuneko 10 artekoak izan daitezke. Kontratua indargabetzeko aukera ere egongo da (SPKLren 192. artikulua).
5.	Kontratuaren arduraduna izendatu behar dugu. Horrek, kontratuaren prestazioa zuzen betetzen dela egiaztatu beharko du , kontratistak bere gain hartutako gizarte-baldintzak gauzatzeko eta esleitzeko irizpideei dagokienez, kontratuan ezartzen denari jarraiki.
6.	Ez badu betetzen, kontratuaren arduradunak , ezarritako betebeharren ez betetzei buruzko informazioa eman beharko dio kontratazio-organoari, eta hala badagokio, zehapenak ezartzeko prozedura hastea edo kontratua indargabetzea proposatu ahalko du.
7.	Gizarte-irizpideak sartzeko gardentasun, proportzionaltasun, lehia libre eta tratu berdintasuneko printzipioei jarraitu behar zaie beti. Baina horrez gain, herritarrenganako konpromisoa ere bada. Horrela, enpresa esleipendun batek gizarte eta ingurumen arloan kontratu bat gauzatzean dituen konpromisoak eta betebeharrak argitaratu eta jakinarazi behar ditu.

8.	Horrenbestez, pleguetan gizarte eta ingurumen arloko konpromiso eta betebeharrak guztiak publikoak izango direla ohartarazten badugu, aurretik adierazitako printzipioei jarraitzeaz gain, lizitatzailerak guztiek hasieratik gizarte eta ingurumen klausulak kontuan hartzea lortzen dugu. Benetan eta zuzen betetzen dituztela egiaztatzea eskatuko zaie.
9.	Beraz, gizarte eta ingurumen konpromiso eta betebeharrak guztiak argi, ikusteko moduan eta modu irisgarrian lizitazioaren iragarkian eta kontratatzailearen profilean argitaratzea proposatzen da.
10.	Gizarte betebeharrak horiek argitaratzeak eta jakinarazteak berme eta egiaztapen handiagoa ematen digu, edozein pertsonak, GKEk edo elkarteek esparru teknologikoko enpresa bat kontratazio-organoaren aurrean salatzeko aukera izango duelako, zenbait konpromiso edo betebeharrak bere gain hartu arren, horiek ez dituela betetzen egiaztatzen badu. Horrela, gizarte zibilak sozialki arduratsua den teknologia baterantz aurrera egiteko bidean parte hartzen du.

AURKI EZAZU ZEURE MUGIKORRAK KONGOKO
INDARKERIAREKIN DUEN LOTURA



ZEURE MUGIKORRAK EZKUTATZEN DUENA



ESTREINALDI APARTA

WWW.GATAZKARIKGABEKOTEKNOLOGIA.ORG
-EN



ALBOAN

-EN KANPAINA BAT



**GATAZKARIK
GABEKO
TEKNOLOGIA**

LORTZEAGATIK

Jesuitek bultzatutako Fundazioa
www.alboan.org

www.gatazkarikgabekoteknologia.org